

Gradu Amaierako Lana  
Zuzenbide Gradua  
2022-2023 ikasturtea

**DEFENTSA ESKUBIDEAREN LEGE ORGANIKOAREN  
AURREPROIEKTUAREN GABEZIETAN  
OINARRITUTAKO KRITIKA**

Ikaslea: Eider Salinas Sanchez

Irakaslea: Iñaki Esparza Leibar

Donostian

2022ko maiatzaren 15ean

## AURKIBIDEA

<b>1. SARRERA.....</b>	<b>3</b>
<b>2. DEFENTSA ESKUBIDEAREN LEGE ORGANIKOAREN AURREPROIEKTUA..</b>	<b>4</b>
<b>3. ANALISIA.....</b>	<b>5</b>
<b>a. Arau-lerruna.....</b>	<b>6</b>
<b>b. Aurretiazko kontsiderazioak.....</b>	<b>9</b>
<b>c. Lehenengo Kapitula .....</b>	<b>16</b>
i.    Objetua .....	16
ii.   Aplikazio eremua .....	16
iii.  Edukia.....	17
<b>d. Bigarren Kapitula.....</b>	<b>21</b>
i.    Asistentzia juridikorako eskubidea.....	21
ii.   Laguntza juridikoa aukeratu, uko egin eta ordezteko eskubidea.....	26
iii.  Informaziorako eskubidea .....	27
iv.   Entzuna izateko eskubidea .....	29
v.    Kalitatezko laguntza juridikoa izateko eskubidea .....	30
vi.   Hizkera argirako eskubidea .....	31
vii.  Auzitegi eta Justizia administrazioarekiko harremanetan aitortutako eskubidea	32
viii. Defentsa-eskubidearen babesak .....	33
<b>e. Hirugarren Kapitula .....</b>	<b>33</b>
i.    Abokatuen zerbitzu prestazioen bermeak .....	34
ii.   Abokatutzaren bermeak .....	34
iii.  Enkargu profesionalaren bermeak .....	34
iv.   Konfidentzialtasun eta sekretu profesionalaren bermea .....	35
v.    Abokatuen adierazpen askatasunaren bermea .....	38
vi.   Abokatu desgaituaren bermeak.....	38
vii.  Abokatuen eginbeharrak .....	39
viii. Abokatuen eginbeharrak deontologikoak.....	40
<b>f. Laugarren Kapitula .....</b>	<b>40</b>
<b>g. Xedapen gehigarriak .....</b>	<b>41</b>
<b>h. Amaierako xedapenak.....</b>	<b>42</b>
<b>4. EKARPENAK .....</b>	<b>43</b>
<b>5. ONDORIOAK .....</b>	<b>57</b>
<b>6. BILBIOGRAFIA .....</b>	<b>59</b>
<b>7. INTERESEKO ESTEKAK .....</b>	<b>61</b>
<b>8. ARAUDIA .....</b>	<b>62</b>

## I. SARRERA

Jarraian aurkezten den Gradu Amaierako Lan honetan (GrAL aurrerantzean) Defentsa Eskubidearen Lege Organikoaren aurreproiektuaren gabezietan oinarritutako kritika egingo da.

Gaiaren aukeraketari dagokionez, arrazoi anitz izan dira erabakia hartzera bultzatu nautenak. Zuzenbide Graduan zehar hasieratik konturatu nintzen zuzenbidearen aurpegi gizatiarrenak interes berezia pizten zidala, bereziki Zuzenbide Penala eta Zuzenbide Prozesal Penala izan dira gehien erakarri nauten Zuzenbide alorrak, beharbada, kriminologian dudan interes biziak zerikusi handia izan du honekin.

Subjetu pasiboa izan da berebiziko interesa sortu didan figura prozesu penalean zehar, bere eskubideetatik hasi eta ustez burutu duen delitua benetan burutu duela frogatzen den kasuetan, zerk eraman duen portaera horiek aurrera eramatea, hemendik, Kriminologian dudan interesa.

Agerikoa da, biktimaren figuraren inguruan asko hitz egin, hausnartu eta arautu dela azken urteotan, eta Espainian eman zaion tratamendu juridikoaren, zigor-prozesuan duen posizioaren eta aitortzen zaizkion eskubideei buruzko azken erreformen ondorioz, esan dezakegu, egoera onuragarri batean aurkitzen dela. Hain beharrezkoa izan den biktimaren-estatusaren hobekuntza honetan, subjeto pasiboaren figurak prozesu penalean pisua edo garrantzia galdu duelaren sentsazioa izan dut, prozesuan duen funtsezko garrantzia nolabait lausotua edo ahaztua geratu balitz bezala.

Espainiar Konstituzioa onartu zenetik, jurisprudenzia eta jardun judizialak defentsarako eskubidea babesteko estandarrak sendotu ditu, baina kontsideratzen dut gaur egungo demokrazia hobetzeko, ezinbestekoa dela eskubide pertsonalen gozamina erabat ziurtatzea eta, horretarako, beharrezkoa da defentsa-eskubidea modu eraginkorrean bermatzea, oraingo erregulazioa urria eta zaitkatua baita.

## II. DEFENSA ESKUBIDEAREN LEGE ORGANIKOAREN AURREPROIEKTUA

Aztergai dugun aurreproiektuak helburutzat du, alde batetik, pertsona ororen eskubideen zerrenda arautzea, defentsa-eskubidearen esparruan. Bestetik, defentsa eskubidean doako laguntza juridikoaren bermeak eta betebeharrak arautzea eta azkenik, elkargoko erakundeen bidez abokatutzan aritzeko berme instituzionalak arautzea.<sup>1</sup> Justizia Ministerioaren titularrak nabarmendu duenez, lege honen bidez, herritarrek berme handiagoak izango dituzte beren defentsa-eskubidea zuzen interpretatzeko, herritarren eskubideak demokratizatuz eta modernizatuz, zuzenbide-estatuaren funtsezko zutabe gisa.<sup>2</sup>

Aurreproiektuaren edukia funtsezko bi alderditan banatzen da: alde batetik, defentsa eskubideak herritar guztiontzat dituen ondorioak; eta, bestetik, abokatutzako profesionalen berme eta betebeharren araubidea eta gainerako berme instituzionalak.

Lehenengo alderdiari dagokionez, defentsa-eskubideak barne hartzen ditu abokatu-laguntza edo zuzenbideko aholkularitza jasotzea, eta pertsonaren interes legítimoak defendatzea, legez aurreikusitako prozeduren bidez. Defentsa-eskubidean barnebiltzen dira, edonola ere, justizia-auzitegietara oztoporik gabe iristeko eskubidea, epaile inpartzial batek zuzenbidean oinarritutako ebazpen kongruente bat emateko eskubidea, baita ebazpen irmoen aldaezintasuna eta ebazpen horiek modu zehatzean betearazteko eskubidea. Era berean, kontrako alderdiak formulatzen dituen uziak ezagutzeko eta horien aurka egiteko beharrezkoak diren ahalmenak biltzen ditu, norberaren uziak babesteko frogabide egokiak erabiltzeko, eta prozesu publiko bat berme guztiekin eskuratzeko, inolako defentsa-gabeziarik gabe. Garrantzitsua da azpimarratzea defentsa-eskubidea funtsezkoa dela prozesu judizial batean justizia bermatzeko, eta eskubide hau bidegabeki mugatzeak ondorio larriak izan ditzakeela justiziarentzat eta ekitatearentzat lege prozesuan.

---

<sup>1</sup> MINISTERIO DE JUSTICIA (2022) *Anteproyecto de ley orgánica de Derecho de Defensa* [PowerPoint aurkezpena]

<sup>2</sup> IUSTEL (2023, apirilak 5) El Gobierno aprueba el Proyecto de Ley Orgánica del Derecho de Defensa, *Diario del Derecho*

Zigor-auzietan, gainera, defentsa-eskubideak barne hartzen du akusazioaren berri izateko eskubidea, norbere buruaren aurka ez deklaratzeko eskubidea, bere burua errudun ez aitortzeko eskubidea, errugabetasun-presuntzioa eta auzialdi bikoitza izateko eskubidea, guzti hauek Prozedura Kriminalaren Legearekin (PKL aurrerantzean) eta gainerako prozesu-legeekin bat etorritik. Aipatutako eskubide hauek zehapen-prozedura administratiboan eta disziplina-prozeduran ere dira aplikagarri, hauek arautzen dituzten legeen arabera. Gainera, arauak berariaz aurreikusten du auzitegien eta justizia-administrazioaren jardueran eta beste administrazio publiko batzuen aurrean bitarteko elektronikoak erabiltzea bateragarria izan beharko dela defentsa-eskubidea benetan gauzatzearekin, legetan aurreikusitako baldintzetan.

Abokatutzaren berme eta betebeharreari dagokienez, aurreproiektu honek ezartzen du profesional tituludunek eta elkargokideek emango dutela laguntza juridikoa, eta haien jarduera askea eta independentea bermatuko dela, baita komunikazioen konfidentzialtasuna eta sekretu profesionala ere. Aurreproiektuak elkargoko orientazio juridikoko zerbitzuak ere aurreikusten ditu, hauen helburua, pertsonen laguntza juridikoari buruzko informazio guztia ematea izango da, batez ere doako laguntza juridikoa eskuratzeko baldintzei dagokienez, eta kolektibo kalteberenei arreta eskeintzea sustatuko da.

Llop-en esanetan, lege organiko hau onartuta, herritarrek defentsa-eskubidea osorik ezagutzea eta eragile juridikoentzat jarduteko gida izatea lortu nahi du Justizia Ministerioak, bai eta garrantzi bereziko gai batean adostasun politiko eta soziala islatzea ere.

### **III. ANALISIA**

2022ko abuztuaren 30an Ministroen Kontseiluak Defentsa Eskubideari buruzko Lege Organikoaren Aurreproiektua onartu zuen eta 2022ko iraiaren 5ean, Justizia Ministeriotik, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusian (BJKN aurrerantzean) sartu zen, azken honek aurreproiektuaren inguruko txostena egin zedin, Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren 561.1.6.artikuluaren arabera.

Ezer baina lehen argitu beharra dago BJKN-ren kontsulta-eginkizuna Botere Judizialaren Lege Organikoaren (BJLO aurrerantzean) 561. artikuluan aipatzen dela. Aipatutako artikulua honen arabera BJKN-ren txostena beharko dute lege-aurreproiektuek eta xedapen orokorrek bertan

adierazten diren gaiei eragiten badiete, guztiz edo partzialki. GrAL honen objektu den aurreproiektua BJLOren 561.1.6.artikuluaren kokatuko liteke, honakoa dio: «**Artículo 561.**

*1. Se someterán a informe del Consejo General del Poder Judicial los anteproyectos de ley y disposiciones generales que versen sobre las siguientes materias:*

*6º Normas procesales o que afecten a aspectos jurídico-constitucionales de la tutela ante los Tribunales ordinarios del ejercicio de derechos fundamentales.<sup>3</sup>*

Honen arira, 2023ko urtarrilaren 26an, BJKN-k aho batez onartu zuen Defentsa Eskubidearen Lege Organikoaren aurreproiektuaren inguruko txosten teknikoa. Bertan, lege testuak dituen gabeziak adierazten ditu, GrAL honen aztergai izango direnak.

Txosten honetan, zalantzan jartzen da, alde batetik, legegileak aukeratutako arau-maila, argi uzten diolarik Gobernuari lege testuak lege organiko izaera izateko Kontsituzio Auzitegiaren “estandarra” bete behar duela, eta kasu honetan ez dela betetzen. Bestetik, Espainiar Konstituzioko 24.artikuluaren aitortutako eskubide eta bermeen garapenik ezari egiten zaio erreferentzia<sup>4</sup>; legeak aurrez zehaztutako epaile arruntari buruzko aipamenik ez egiteak edo errugabetasun presuntziorako eskubideari buruz aipamenik ez egitea, testuaren gabezia garrantzitsua dela ohartarazten du BJKN-k.

#### **a. Arau-lerruna**

Legegileak Aurreproiektuari eman nahi izan dion izaera mistoa da (azken xedapenetatik lehenengoan), aurreproiektuaren arabera lege organikoari eta lege arruntari dagozkion gaiak biltzeagatik. Defentsa-eskubidearen erregulazioa eta hori bermatzen duen lanbidearen erregulazioaren “izaera bereiziezina” duten gaiak izatean justifikatzen du Gobernuak aipatutako arau-lerruna. Azken xedapenetako lehenengoan, aurreproiektuaren arau-lerruna lege organiko gisa ezartzen du eta bigarren tartekiak dioenez, lege arruntaren izaera dute III.kapitulua (15 eta 16.artikuluak izan ezik), IV.kapitulua eta azken xedapenek, izaera organikoa duen azken xedapenetan lehenak ezik.

---

<sup>3</sup> CONSEJO GENERAL DEL PODER JUDICIAL. *Informe sobre el anteproyecto de Ley Orgánica del Derecho de Defensa*, Madrid, 2023, 1. or.

<sup>4</sup> COMUNICACIÓN PODER JUDICIAL (2021, 23 de marzo). El Pleno del CGPJ aprueba el informe al anteproyecto de Ley Orgánica del Derecho de Defensa. [Nota de prensa]. Consejo General del Poder Judicial de España.

Arau honen konfigurazioa lege organiko partziala izateak, suposatzen du, lege organiko izaera duen heinean, lege organikoaren atributuen onura jasotzen duela eta bestalde, lege arruntaren izaera duten arauak, lege arruntaren izaera izateagatik, haiek aldatu edo indargabetzeko, berezko prozedurak eta gehiengoak aplikatu beharko direla.<sup>5</sup>

Lege organikoa lege arrunta baino maila handiagoko araua izanik, hauen eginkizuna Konstituzioan berariaz aurreikusitako gaiak arautzea da, zehazki, EK 81.artikuluak lege organikoei gordetako gaiak zehazten ditu (Konstituzioko beste xedapen batzuekin batera), hala nola, oinarrizko eskubideen eta askatasun publikoen garapena, autonomia-estatutuak eta hauteskunde-araubide orokorra. Prozedurari dagokionez, bigarren tartekiak adierazten du, Diputatuen Kongresuak proiektu osoari buruzko azken bozketan gehiengo absolutua galdutuko duela<sup>6</sup>.

Zentzu honetan aipagarria da Konstituzio Auzitegiak ezartzen duen lege organikoaren erreserbaren interpretazio murriztailea: *Las Leyes orgánicas son una modalidad excepcional, que no puede ser extensivamente aplicada a supuestos materiales distintos de los previstos en el art. 81.1 de la Constitución, y cualquier intento gubernamental o parlamentario de sustituir el concepto material de Ley orgánica por un concepto formal sería inconstitucional.*<sup>7</sup>

Bertatik ondorioztatzen da Lege Organikoak salbuespenezko modalitatea direla eta epai berean ondorengoa adierazten da: *Este Tribunal... ha mantenido que la Ley orgánica puede contener preceptos no orgánicos relativos a materias conexas... Pero el que una Ley orgánica pueda contener preceptos no orgánicos no significa que sea suficiente la existencia de algún precepto de contenido orgánico para que pueda atribuirse a toda la Ley dicho carácter. Es preciso, en primer término, que el núcleo de la Ley afecte a materias reservadas a la Ley orgánica, de acuerdo con lo establecido en el art. 81.1 de la Constitución, y la conexión no puede consistir en yuxtaponer preceptos referidos a materias distintas de las reservadas a tal tipo de Ley. Por otra parte, la Ley orgánica sólo puede incluir preceptos que excedan del ámbito estricto de la reserva cuando su contenido desarrolle el núcleo orgánico y siempre que constituyan un*

---

<sup>5</sup> CONSEJO GENERAL DEL PODER JUDICIAL. *Informe sobre el anteproyecto de Ley Orgánica del Derecho de Defensa*, Madrid, 2023

<sup>6</sup> BASTIDA FREIJEDO, F. J. (2004). Comentario bibliográfico sobre la naturaleza jurídica de las leyes orgánicas. *Revista Española de Derecho Constitucional*, (70), 291-308.

<sup>7</sup> Konstituzio Auzitegia, 76/1983 Sententzia, 1983ko abuztuak 5ekoa, 22.Aurrekariak

*complemento necesario para su mejor inteligencia, debiendo en todo caso el legislador concretar los preceptos que tienen tal carácter.*<sup>8</sup>

Konstituzio Auzitegiaren arabera, lege bat organikoa izateko, lege horren muinak lege organikoari erreserbatutako gaietara eragin behar die, ez baita nahikoa eduki organikoa duen xedapen bat, legeari bere orokortasunean izaera hori esleitu ahal izateko eta erreserbaren eremu hertsia gainditzeko duten xedapenak sar ditzake haren edukiak gune organikoa garatzen duenean soilik, betiere, hura hobe ulertzeko beharrezkoa osagarri direnean.

Defentsa Eskubidearen Lege Organikoaren aurreproiektuak bere berme juridikoen zabalkundea bideratu nahi du, eta hori ez dator bat aruari esleitu nahi zaion izaera organikoarekin. Izaera organikoa izateko, aspektu erabakigarria oinarrizko eskubide baten garapen zuzena izatea da eta haren elementu nuklearrei (titulartasuna, funtsezko edukia, beste oinarrizko eskubide batzuekin mugatzea) eragitea. Defentsa-eskubidearen erregulazioaren eta “hori bermatzen duen lanbidearen” erregulazioaren artean dauden harremanak agerikoak izan arren, BJKNaren aburuz ezin da nahikotzat jo “bi gaien izaera bereiziezina” Konstituzio Auzitegiak ezarritako estandarraren baldintzak betetzen direla jotzeko.

Ezin daiteke ondorioztatu modu objetibo batean zein arrazoi duen legegileak hura bermatzen duen lanbidea maila organikoko lege proiektu batean sartzea baliozkotasunez justifikatu ahal izateko eta gune organikoa garatzen dutela ziurtatzeko, azaldutako doktrina konstituzionalak eskatzen duen moduan. Egia bada ere doktrina hau sarritan alde batera utzi dela bi edukien arteko korrelazioari dagokionez, badago esatekorik eta horregatik, kontsulta egin duen organoarekin BJKNak duen lankidetzaren eginkizunean aipatu behar da, etorkizuneko araua Konstituzio Auzitegiaren irizpideetara eta doktrinara hobe egokitu dadin<sup>9</sup>.

Nabarmenezkoa da aipatu den konstituzio-doktrinak ezartzen duen lege organikoaren erreserbaren interpretazio murriztaileak kontu handiz identifikatzea eskatzen duela bertan jasota geratu behar duten erregulazioak, adierazitako zentzuan. Perspektiba honetatik, ez da antzematen aztergai den araua lege organikoari erreserbatutako gaietan behar bezala barnebildu daitekeenik, zioen azalpenean bertan adierazten baita: *«Lege honen helburu nagusia ez dela*

---

<sup>8</sup> Konstituzio Auzitegia, 76/1983 Sententzia, 1983ko abuztuak 5ekoa, 51.O.J

<sup>9</sup> CONSEJO GENERAL DEL PODER JUDICIAL. *Informe sobre el anteproyecto de Ley Orgánica del Derecho de Defensa*, Madrid, 2023, 4.or.



*beste arau batzuetan esanbidezko eta ageriko aintzatespena duten prozesu-arauak biltzea, ez eta emandako printzipioak errepikatzea edo abokatutzaren lanbidearen erregulazioa zehaztea ere. Lege hau haratago doa: pertsona fisiko eta juridikoek defentsa-eskubidearen titular diren aldetik dagozkien aintzatespen eta berme bereziak ezagutzeko beharrean oinarritzen da, eta abokatutzako profesionalen bermeak eta betebeharrak zehazten dituzte, bai eta, bereziki, elkargoaren jokoa ere, horiek gauzatu eta beteko direla zaindu eta bermatzeko». Bertatik ondoriozta daiteke ez dela Defentsa eskubidea eremu organikoan arautzen, baizik eta jada existitzen diren berme juridikoen zabalkundea bideratzea da helburua. Azken hau ez da bateragarria legegileak aruari eman nahi dion izaera organikoarekin, izan ere, legea organikoa izan ahal izateko, oinarritzko eskubide baten garapen zuzena suposatu behar du eta haren elementu nuklearrei eragin behar die, titulartasunari eta funtsezko edukiari dagokionez.<sup>10</sup>*

## **b. Aurretzko kontsiderazioak**

Defentsa-eskubidea oinarritzko eskubide aitortua da, nahiz eta berariaz ez izan, nazioarteko testu guztietan, bai eta herrialdeetako konstituzioetan ere. Izan ere, egitate zigorgarri bat egozten zaion edozein pertsonak prozesu penalean jardun ahal izango du, parte-hartze kriminal hori ukatuz eta egozpena egiten duenaren argudioak ezeztatuz edo jarrera pasiboa erakutsiz, harik eta alderdi akusatzaileek uzi penala osatzen duten egitateak egiaztatzeko karga bete arte. Ikertua, beraz, prozesu penalaren zati bat da, eta ez haren objektu, eredu inkisitiboaren garaian gertatzen zen bezala<sup>11</sup>.

Ikertua, herritarren oinarritzko eskubideak babesten dituen arlorik sentikorrenaren<sup>12</sup>, hau da, prozesu penalaren funtsezko elementua da eta defentsa-eskubidearen titular eztabaidaezina. Zuzenbide Estatuaren oinarritzko egitura-printzipio hau Espainiar Konstituzioaren (EK aurrerantzean) 24.artikuluari aitortzen da. Xedapen honen arabera, pertsona orok du epaile eta auzitegien babes eraginkorra lortzeko eskubidea, inñolako defentsa-gabeziarik jasan gabe; bigarren paragrafoak espresuki jasotzen du defentsarako eta abokatuaren laguntzarako eskubidea. Subjektu pasiboak eskubidea du prozesuan zuzenean esku hartuz defentsa

---

<sup>10</sup> CONSEJO GENERAL DEL PODER JUDICIAL. *Informe sobre el anteproyecto de Ley Orgánica del Derecho de Defensa*, Madrid, 2023, 5.or.

<sup>11</sup> ASENSIO GALLEGO, J.M. (2017). El derecho al silencio como manifestación del derecho de defensa (Ser. Monografías. alta calidad en investigación jurídica). Tirant lo Blanch. 258.or.

<sup>12</sup> CRESPO BARQUERO, P. (2020). La igualdad de armas y la asimetría acusación-defensa en un proceso penal basado en la presunción de inocencia: (Referencia al anteproyecto de Ley de Enjuiciamiento Criminal de 2011 y la propuesta de Código Procesal Penal de 2013). *Teoría & Derecho. Revista De Pensamiento jurídico*, (16), 221.or.

gauzatzeko, eta eskubide horren oinarria giza duintasunaren beharrezko errespetua da, baita bere eskubideak arriskuan ikusten dituenari errekonozimendua ematea ere, eskubide horiek babesteko defentsa antolatzeko aukera emanez.<sup>13</sup>

EKren 24. artikulua babes judizial eraginkorrerako oinarrizko eskubidea Zuzenbide Estatuaren printzipio gidari gisa ezartzen du. Eskubide hori, gure ordenamendu juridikoan, erabat lotuta dago defentsarako eskubidearekin, eta, alderdi negatiboan, defentsa-gabeziarik ez jasateko eskubidearekin. Aurreproiektuaren helburua gure ordenamenduan esanbidezko onarpena duten prozesu-arauak formalki biltzea baino ez da, eta helburu nagusia pertsona fisiko eta juridikoek, defentsa-eskubidearen titular diren aldetik, aipatutako eskubidearen funtsezko alderdiak arau bakar batean eskura izatea, horien irismena eta garrantzia ezagutzeko aukera emanez. Era berean, eskubidearen bermea zaintzeaz arduratzen diren eragile juridikoentzako gida gisa jardun nahi du aurreproiektuak. Zehazki, Lege Organikoaren Aurreproiektuak abokatutzako profesionalen berme eta betebeharrak deontologiko jakin batzuei buruzko erreferentziak jasotzen ditu, lanbidearen jarduna arautzen duten arauetan jasota daudenak, eta garrantzi handiagoa eman nahi die, lege organiko mailako arau batean sartzen baititu.<sup>14</sup>

Defentsa-eskubidea, delituzko egitate batean parte hartzen dela uste den pertsonari aitortutako ahalmen gisa uler daiteke, kontraesan eta berdintasun printzipioak, bidezko eta berme guztiak errespetatzen dituen prozesu batera jotzeko eskubidea. Prozesu horretan, bere kabuz edo letraduaren laguntzarekin, bere eskubide eta interes legitimoak baliarazi ahal izango ditu, eta, komeni dena alegatuz eta frogatuz, aurka egiten dion alderdiari aurre egin ahal izango dio.<sup>15</sup>

Prozesu kontraesankor baterako eskubideak suposatzen du defentsa eta akusazioak eskubidea dutela beste aldeak aurkeztutako frogak ezagutzeko eta horiei buruzko alegazioak egiteko, eta horrek lotura du, prozesuan jarraitu behar duen akusazio printzipioarekin eta arma berdintasunaren printzipioarekin. Praktikan, eskubide honek barne hartzen du aurkeztutako froga guztien berri izateko eta iruzkinak egiteko eskubidea; auzitegiaren erabakian eragiteko, auzitegian aurkeztutako frogekin ohitzeko denbora nahikoa izateko eskubidea eta frogak aurkezteko eskubidea.

---

<sup>13</sup> LOPEZ YAGÜES, V. (2012) *El derecho a la asistencia y defensa letrada: su ejercicio en situaciones de privación de libertad*, Tirant lo Blanch 2002, Universitat d' Alacant (Publicacions), 36.or.

<sup>14</sup> REQUEJO NAVEROS, M., SÁNCHEZ PÉREZ, I., VEIGA GUERRA, N. (12 de septiembre, 2022) Publicado el Anteproyecto de Ley orgánica del Derecho de Defensa. *Pérez-Llorca*

<sup>15</sup> LOPEZ YAGÜES, V. (2012) *El derecho a la asistencia y defensa letrada: su ejercicio en situaciones de privación de libertad*, Tirant lo Blanch 2002, Universitat d' Alacant (Publicacions), 35.or.

Estrasburgoko Auzitegiak zehaztu du, eskubide horiek babestu eta bermatzean, jurisdikzio-organoek kontuan hartu behar dutela, kontraesanezko eta bidezko prozesu baten baldintzak betetzen ote dituen. Giza Eskubideen Europako Auzitegiak (GEEA aurrerantzean) bere ebazpenetan adierazten du armen berdintasunik eza edo defentsa-eskubidea urratzeari buruzko edozein alegazio, Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren (GEEH aurrerantzean) 6.artikuluaren argitan aztertu beharko direla kasu guztietan, izan ere, aipatzen ditugun printzipio hauek ekitatezko prozesurako eskubidearen elementu integratzaileak dira (kontraesana, berdintasuna, defentsa).<sup>16</sup>

Espaniar Konstituzioak defentsa eskubidearen inguruan aipamenak egiten ditu 17.3 eta 24.artikuluetan. EK 17.3.artikuluak askatasun gabetzeak galdatzen dituen baldintzei buruz mintzatzen duen bitartean 24.artikuluak ondorengo eskubide eta bermeak aitortzen ditu; legeak aurreikusitako epaile arrunta, atzerapenik gabeko prozesu publikoa eta berme guztiekin; ez deklaratzeko eta errudun ez aitortzeko eskubidea; errugabetasun presuntzioa.<sup>17</sup>

Ondorengoa dio Auzitegi Gorenak berme prozesalen artean gorenaren<sup>18</sup> defentsa-eskubidearen inguruan: *«se proyecta no solo para el proceso penal sino también para el resto de los procesos, con las salvedades oportunas, y que su finalidad es la de asegurar la efectiva realización de los principios de igualdad de las partes y de contradicción que impone a los órganos judiciales el deber positivo de evitar desequilibrios entre la respectiva posición procesal de las partes, o limitaciones en la defensa que puedan inferir a alguna de ellas un resultado de indefensión, prohibido en todo caso por el art. 24.1 CE. Del mismo modo se ha destacado que en los supuestos en que la intervención de letrado sea preceptiva, esta garantía constitucional se convierte en una exigencia estructural del proceso tendente a asegurar su correcto desenvolvimiento, cuyo sentido es satisfacer el fin común a toda asistencia letrada que es el de lograr el adecuado desarrollo del proceso como mecanismo instrumental introducido por el legislador con miras a una dialéctica procesal efectiva que facilita al órgano judicial la búsqueda de una sentencia ajustada a Derecho.»*<sup>19</sup>

---

<sup>16</sup> CONSEJO GENERAL DEL PODER JUDICIAL. *Informe sobre el anteproyecto de Ley Orgánica del Derecho de Defensa*, Madrid, 2023, 8.or.

<sup>17</sup> COMUNICACIÓN PODER JUDICIAL(26 de Enero, 2023) El Pleno del CGPJ aprueba el informe al anteproyecto de Ley Orgánica del Derecho de Defensa

<sup>18</sup> LOPEZ YAGÜES, V. (2012) *El derecho a la asistencia y defensa letrada: su ejercicio en situaciones de privación de libertad*, Tirant lo Blanch 2002, Universitat d' Alacant (Publicacions), 35.or.

<sup>19</sup> Konstituzio Auzitegia, 174/2009 Sententzia, uztailearen 16koa, 2.O.J

Auzitegi Gorenak fragmentu honetan defentsa-eskubideak prozesu guztietan duen garrantzia nabarmentzen du, alderdien berdintasuna eta prozesuko kontraesana bermatzeko, babesgabezia ekidinez. Abokatu baten esku-hartzea nahitaezkoa den kasuetan, defentsa-eskubidea prozesuaren garapen egokia bermatzen duen berme konstituzional estruktural bihurtzen da.

Nazioartean, defentsa-eskubidea aitortzen dute, 1948ko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 10.artikuluak; 1950eko Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmenaren 6.artikuluak; 1966ko Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunaren 14.artikuluak (EZPNI aurrerantz) eta 1969ko Giza eskubide buruzko Amerikako Konbentzio 8.artikuluak.

EZPNIren 14.3.d) artikulua adierazten du akusatatu orok duela prozesuan presente egoteko eta bere burua defendatzeko edo berak aukeratutako defendatzaile baten laguntza izateko eskubidea. Defendatzaile izango ez balu, hura izateko duen eskubideari buruko informazioa jasotzeko eskubidea aitortzen da, eta, justiziaren interesak hala eskatzen badu, doako ofiziozko defendatzailea izendatzeko, ordaintzeko baliabide nahikorik ez duen kasuetan.

1950eko azaroaren 4ko Giza Eskubide eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmenak honako eskubideak aitortzen dizkio subjektu pasiboari: bere burua defendatzea edo berak aukeratutako defendatzaile baten laguntza izatea, eta, hori ordaintzeko baliabiderik ez badu, ofiziozko abokatu baten doako laguntza izatera, justiziaren interesak hala galdatzean.

Nazioarte mailan bereziki aipagarri dugu arestian aipatutako Giza Eskubideen Europako Hitzarmeneko 6.artikuluak, eskubide eta berme prozesalen zerrenda luze bat adierazten duena. Esan beharra dago artikulua hau zentzu orokor batean hartu beharrekoa dela, ez baitago eksklusiboki jurisdikzio penalera bideratua.<sup>20</sup>

GEEH-ko 6.artikuluaren aplikazioa arautzen duen printzipio nagusia ekitatea izanik, Auzitegiaren ardura nagusia, kasu bakoitzean, prozesu penalaren zuzentasun orokorra ebaluatzea eta bidezko judizioaren eskakizunak betetzen diren atzertzea da, betiere prozesuaren bilakaeraren osotasuna kontuan hartuz. Prozesuko akatsen bat antzemango balitz, barne

---

<sup>20</sup> ESPARZA LEIBAR, I. eta ETXEBERRIA GURIDI, J.F, (2021) Derecho a un proceso equitativo, I. Lasagabaster (Ed.) *Convenio Europeo de Derechos Humanos: Comentario sistemático* (4ªed.), Thomson Reuters Civitas 205.or.

auzitegiei legokie, lehenik eta behin, ondorengo prozedura zuzendu ote den baloratzea, eta ondorio horietarako baloraziorik eza, printzipioz, bateraezina liteke bidezko judizioaren eskakizunekin Hitzarmenaren 6.artikuluaren arabera.

Mintzo dugun artikuluan jasotako ekitate-baldintza orokorrak prozesu penal guztiei aplikatzen zaizkie, edozein delitu mota izanik. Hala ere, kontuan har daiteke interes publikoaren pisua delitu pribatuen ikerketan eta zigorrean, prozedura osoa bidezkoa izan den erabakitzeko orduan. Azpimarratzekoa da artikulua honen aplikazioak ezin duela suposatu polizia agintarietako terrorismoaren edo beste delitu larri batzuen aurkako neurri eraginkorrak hartzeko zailtasun neurrigaberik., GEEH 2, 3 eta 5.1. artikuluen arabera herritarren bizitza-eskubidea eta gorputz segurtasunerako eskubidea babesteko betebeharra betetzerako orduan. Hau horrela bada ere, interes publikoko arazoek ezin dute eskatzailearen defentsa eskubideen funtsa iraungitzen duten neurririk justifikatu.<sup>21</sup>

GEEAk aitortu du GEEHko 6.3.artikuluan adierazten diren galdapenak prozesu ekitatibo baterako eskubidearen berriazko aspektuak adierazten dituela (GEEA Sakhovskiy c. Rusia, 2010eko azaroaren 2a). Era berean, adierazi du GEEHko 6.3.d. artikuluari dagokionez, bertan pertsona baten aurka bideratutako prozedura, subjektu pasiboa behar bezala ordezkatu gabe gauzatuko ez dela bermatzen dela, eta bertan aitortutako eskubideak bere burua defendatzeko, berak aukeratutako defendatzaile baten laguntza izateko eta ofiziozko abokatu baten doako laguntza izateko eskubidea barne hartzen dituela (GEEA Pakelli vs.Alemania, 1981eko abenduaren 12koa)<sup>22</sup>.

Hau horrela bada ere, aztergai dugun aurreproiektu hau aitzindaria da Europan, ez baitago defentsa-eskubidearen lege integral baten alde aurreko erreferenterik. Lege-testu hau prozesu bateko alderdien babes judizial eraginkorra ziurtatzea ahalbidetzeko arautzat aurkeztu da, pertsona guztiei juridikoki aitortzen zaizkien ahalmen eta berme guztiak biltzen dituela hitz emanez. PILAR LLOPEn aburuz<sup>23</sup>, pertsonak bere interes legitimoak defendatzeko eta babes judizial eraginkorra ziurtatzeko aukera emango du. Aldi berean adierazten du aurreproiektu

---

<sup>21</sup> ECHR-CEDH. (s. f.). Guide on Article 6 - Right to a fair trial (criminal limb), 7.or.

<sup>22</sup> FISCALÍA GENERAL DEL ESTADO. *Informe sobre el anteproyecto de Ley Orgánica del Derecho de Defensa*, Madrid, (29 de Diciembre, 2022), 8.or.

<sup>23</sup> ESTEBAN, P. (12 de Septiembre, 2022) El anteproyecto de ley del derecho de defensa a examen: hablan la ministra Llop y los abogados, *Cinco Días*

honen onarpenarekin, Justizia Ministerioak, pertsonen defentsa-eskubidearen benetako irismen osoa ezagutzea lortu nahi duela, bai eta eragile juridikoentzat jarduteko gida bat egotea.

Zuzenbide anglosaxoian, babes judizialerako eskubidea “due process of law” errespetatzeko betebeharraren baliokidea da, Amerikako Estatu Batuetako Konstituzioaren VI. eta XIV. zuzenketetan jasoa dagoen betebeharra izanik<sup>24</sup>. Benetako babes judizialerako eskubideak, alde batetik, sistema judizialera oztoporik gabe iristeko eskubidea barnebiltzen du<sup>25</sup> (bai denuntziak jartzeko, habeas corpus-a jartzeko etab.). Bestetik, medioak erabiltzeko eskubidea (frogak, informazioa, itzultzailea, perituak...) eta prozesuaren amaieran arrazoi juridikoetan motibatua dagoen erresoluzio bat lortzeko eskubidea ere barneratzen du. Gainera, epaiaren exekuzioa lortzeko edo materializatzeko eskubidea ere bertan sartuko liteke eta honekin batera legean aurreikusiriko helegiteak aurkezteko eskubidea ere jasotzen du, epaiarekin ados ez gauden kasuetan, legeak ezarriko duelarik nork eta noiz jar dezakeen helegitea.

Subjektu pasiboaren ikuspuntutik, defentsa eskubidea zigor-prozesuko berme nagusietako bat da, kontradikzio printzipioa bermatzeko ezinbestekoa den heinean, bi aldarrikapen dituelarik.

Alde batetik, inputatuak berak egikaritzen duen defentsa dugu, autodefentsa deritzona, legeak espreski aurreikusten dituen kasuetan soilik posible dena, esaterako, prozesuko egintzetan parte hartzea, idazkiak aurkeztu eta aurkaratzeko baliabideak erabiltzea eta akusazioaren tesiari aurka egiten dioten baieztapenak eta deskargu-frogak aurkeztea.<sup>26</sup> Zentzu honetan Prozedura Zibilaren urtarrilaren 7ko 1/2000 Legeak eta Prozedura Kriminalaren 1882ko irailaren 14ko Legeak letradu eta prokuradorearen laguntzari buruz agindutakoa aintzat hartu beharko da.

Xedapen honetan subjektu pasiboari akusazioaren berri izateko aitortzen dion eskubidea ezinbestekoa da bere defentsa eta estrategia prestatu ahal izateko, eta honekin batera interpreterako eskubidea.

Gainontzean, aurretik aipatutako prozesu judiziala arautzen duen kontraesan-printzipioa eta alderdien defentsarako berdintasuna direla eta, premiazkoa da eskubide hori eraginkorra izatea justizia prozesala lortzeko. Aipatutako kasu horietatik kanpoko defentsari, defentsa teknikoa deritzo. Defentsa teknikoa EK 17.3 eta 24.2.artikuluetan aurreikusita dagoen oinarrizko berme

---

<sup>24</sup> CONGRESO, Sinopsis artículo 24

<sup>25</sup> Konstituzio Auzitegia, 223/2001 Sententzia: "desde la STC 37/1995, de 7 de febrero, este Tribunal ha venido reiterando que el núcleo del derecho fundamental a la tutela judicial proclamado por el artículo 24.1 CE consiste en el acceso a la jurisdicción"

<sup>26</sup> Varios autores. Coordinado por GÓMEZ COLOMER, J.L. y BARONA VILAR, 2022, *Proceso Penal. Derecho Procesal III, 2ª edición*. Tirant lo Blanch, Valencia. 398.orr.

eta eskubidea da. Arau orokor bezala, postulazio prozesala abokatu (defentsa egikaritu) eta prokuradore (ordezkaritza egikaritu epaitegian) bidez egiten da, salbuespenak kasuz kasu aztertu beharko direlarik, defentsa-gabezia ematen den edo ez aztertuz kasu bakoitzean. Arau orokor honen salbuespena oso gutxitan onar daiteke eta zalantza kasuetan abokatu zein prokuradorea izendatuko dira.

Defentsa teknikoa gauzatzeko espainiar Estatuko sistema prozesal penalak aurreikusten duen bide bakarra, abokatu batek gauzatea da, subjeto pasiboak berak ezin baitu bere kabuz defentsa egikaritu, horrela dio Konsituzio Auzitegiak: *El contenido del derecho a defenderse por sí mismo no se extiende a la facultad de prescindir de la preceptiva defensa técnica. El mandato legal de defensa por medio de Abogado encuentra una propia y específica legitimidad, ante todo en beneficio del propio defendido, pero también como garantía de un correcto desenvolvimiento del proceso penal, asegurando, en particular, la ausencia de coacciones durante el interrogatorio policial y, en general la igualdad de las partes en el juicio oral, y evitando la posibilidad de que se produzca la indefensión del imputado de tal modo que frente a una acusación técnica aparezca también una defensa técnica*<sup>27</sup>. Bertatik ondorioztatzen da, zigor-prozesuan defentsa-teknikoa beharrezkoa dela subjeto pasiboaren onurarako, prozesu penalaren garapen egokia bermatzeko, poliziaren derrigortzerik ez dagoela ziurtatzeko, eta bistan alderdien arteko berdintasuna errespetatzen dela egiaztatzeko. Beraz, ulertzen da Defentsa teknikoa zigor-prozesu osoan beharrezkoa dela.

Zentzu honetan garrantzitsua da Prozedura Kriminalaren Legeko (PKL aurrerantzean) 118.artikuluaren edukiari erreparatzea subjeto pasiboaren estatusa borobiltzea baitu helburu. Artikulu honen arabera, zigorgarria den egitate bat egozten zaion pertsona orori defentsa-eskubidea aitortzen zaio, berri ematen zaionetik, atxilotzetik, beste edozein kautela-neurri hartu denetik edo hura auzipetzea erabakitzetik. Horretarako, justifikatu gabeko atzerapenik gabe, ondorengo eskubideak onesten zaizkio: egozten zaizkion egitateen eta hauetan izandako edozein aldaketa garrantzitsuren berri izatea; deklarazioaren aurretik jarduketak behar besteko aurrerapenarekin aztertzea; zigor-arloko prozesuan jardutea; abokatua askatasunez izendatzea; doako laguntza juridikoa eskatzea; doako itzulpen eta interpretazioa; isilik egotea eta adierazpenik ez egitea; norberaren buruaren aurka ez deklaratzeko eta bere burua errudun ez aitortzea.

---

<sup>27</sup> Konstituzio Auzitegia, 29/1995 sententzia, 1995eko ostailaren 6koa 4.O.J

### **c. Lehenengo Kapitulu**

Lehenengo kapitulu hiru artikuluz dago osatua, non, aurreproiektuaren xedea, aplikazio-eremua eta edukia arautzen diren.

#### **Objetua (1. Artikulu)**

Aurreproiektuaren lehen artikulua dioenez, Lege Organiko honen objetua EK 24.artikuluaitortzen den eta oinarriko eskubide xedaezina den defentsa eskubidea arautzea da, legeak berariaz aitortzen duen kasuetan izan ezik, Zuzenbide Estatuaren eta eskubide eta askatasunen berme gisa.

Bigarren parrafoaren arabera, pertsona fisiko eta juridiko orok, bere eskubide eta interes legitimoak defendatzeko eskubidea du, Espainiar Konstituzioan eta legeetan xedatutakoaren arabera. Kontuan izanik bigarren artikuluan jasotzen den aplikazio eremu subjektiboa lehenengo artikulua bigarren puntuarekin alderatuz nolabaiteko bikoizketa dakarrela, BJKNak azken hau kentzea iradoki dio Gobernuari errepikapenak sahiestearren, baina haratago doa, izan ere, alferrikako manuzat jo du, beharrezkoa ez den informazioa biltzen duela kontsideratzeagatik; BJKNren arabera, xedea EK24.artikuluaren zuzeneko garapena dela agertzea liteke egokiena.

Hirugarren parrafoan, 1882ko Prozedura Kriminalaren Legea eta gainerako lege prozesalari igortzen du defentsa-eskubidearen garapena, hala dagozkien eremuetan. Gomendagarria liteke, BJNKren esanetan, lege prozesalak orokorrean aipatzea, zehaztapenik egin gabe eta aldi berean eskubidea gauzatzeko baldintzei (eta ez haren garapenari) buruz mintzo dela adieraztea.

#### **Aplikazio eremua (2. Artikulu)**

Defentsa eskubidearen hedadura objektibo zein subjektiboa deskribatzen ditu, ordenamendu juridikoan aitortutako ahalmen eta bermeen multzoa biltzen duen bitartek. Pertsona fisiko eta juridikoa guztiak dira, aurreproiektuaren esanetan, defentsa-eskubidearen titularrak, aukera ematen dielarik haien askatasun eta interes legitimoak babestu eta baliarazteko, alde aurretik ezarritako prozedura baten arabera, auzitegi eta administrazio publikoetan, edozein motako eztabaidetan, baita lege prozesal zein sektorialetan araututako gatazkak konpontzeko bitarteko



egokietan<sup>28</sup>. Artikulu honek ez du pertsona juridikoen zehaztapenik egiten eta honek suposatzen du izaera juridiko-publikoa dutenak ere barnebilduko liratekeela.

### **Edukia (3.Artikulua)**

Defentsa-eskubidea osatzen duten bermeen zerrenda indartzen duen xedapena dugu oraingoa, zigor-arloko, administrazio-zehapeneko eta disziplina-arloko prozeduretan murgilduta dagoen pertsona orori aplikagarri zaiona<sup>29</sup>; zehazki, abokatu-laguntza, zuzenbideko aholkularitza eta pertsonaren interes legitimoen defentsa barnebiltzen ditu, legez aurreikusitako prozeduren bidez egikaritutako liratekeenak.

Gainera, justizia-auzitegietara oztoporik gabe iristeko eskubidea; bidegabeko atzerapenik gabeko prozesua izateko eskubidea; legeak aurrez ezarritako epaile arruntak eta inpartzialak zuzenbidean oinarritutako ebazpen zentzuduna emateko eskubidea; ebazpen irmoen aldaezintasuna eta ebazpen horiek bere horretan betearazteko eskubidea ere aipatzen dira artikulu honen bigarren paragrafoan baina ez da hauen inguruko garapenik egiten aurreproiektu osoan zehar.

Auzitegietara oztoporik gabe iristeko eskubideari dagokionez, GEEH 6.1.artikuluak, pertsona orori aitortzen dio auzitegi batek bere eskubide eta betebeharrak zibilei buruzko edozein eztabaida, desberdintasun edo uzi ezagutzeko eskubidea. Ekitatezko prozesua bete ahal izateko, beharrezkoa da prozesurako sarbidea eta auzitegietarako sarbide askea bermatzea, GEEAk berehala onartu zuelarik auzitegietara jotzeko eskubide hau 6.1.artikuluaren eduki zati gisa.

GEEAren ustez, auzitegietara jotzeko eskubidea, ebazpen irmoak eta, beraz, nahitaezkoak betearaztera ere iristen da<sup>30</sup>. Hala ere, zehaztu du eskubide hau ez dela erabatekoa eta mugatu egin daitekeela.<sup>31</sup>

---

<sup>28</sup> REQUEJO NAVEROS, M., SÁNCHEZ PÉREZ, I., VEIGA GUERRA, N. (12 de septiembre, 2022) Publicado el Anteproyecto de Ley orgánica del Derecho de Defensa. *Pérez-Llorca*

<sup>29</sup> REQUEJO NAVEROS, M., SÁNCHEZ PÉREZ, I., VEIGA GUERRA, N. (12 de septiembre, 2022) Publicado el Anteproyecto de Ley orgánica del Derecho de Defensa. *Pérez-Llorca*

<sup>30</sup> *Inmobiliaria Saffi v. Italia*, 1999ko uztailaren 28ko Epaia

<sup>31</sup> ESPARZA LEIBAR, I. eta ETXEBERRIA GURIDI, J.F, (2021) Derecho a un proceso equitativo, I. Lasagabaster (Ed.) *Convenio Europeo de Derechos Humanos: Comentario sistemático* (4<sup>o</sup>ed.), Thomson Reuters Civitas (263-264 or.)

Aldi berean, adierazten da defentsa-eskubideak barne hartzen dituela: kontrakorik adierazten duten uziak ezagutzeko eta hauen aurka egiteko beharrezko ahalmenak; norberaren uzien aldeko frogabideak erabiltzeko ahalmena; ukigabetasun-bermea eta berme guztiak dituen prozesu publiko bat eskuratzea, inolako defentsa-gabeziarik pairatu gabe. Publizitateari dagokionez, helburua jurisdikzio-jardueraren gardentasuna zaitzea da, printzipio hau ahozkotatasunaren printzipioari estuki lotua dagoelarik. Hala ere, GEEHk ez dio erabateko izaerarik ematen publizitate printzipioari, 6.1.artikuluaren Entzunaldi Salara sartzeko debeku supostuak adierazten dituelarik, bai prentsari, bai publikoari oro har, epaiketa osoan zehar edo zati batean.<sup>32</sup>

Xedapen honen hirugarren parrafoaren esanetan defentsa eskubideak barne hartzen ditu: akusazioaren berri izateko eskubidea; norbere buruaren aurka ez deklaratzeko eskubidea; errudun ez aitortzeko eskubidea; errugabetasun presuntzioa eta auzialdi bikoitza, zehapen-prozedura administratiboari eta disziplina-prozedurari aplikagarri ere aplikagarri izango zaiona.

Zentzu honetan, komenigarria da GEEAren 2005eko urtarrilaren 20ko Mayzit c. Rusia Sententzia aipatzea, zeinak adierazten duen: *«Las garantías específicas establecidas en el artículo 6.3 ejemplifican la noción de juicio justo con respecto a las situaciones procesales típicas que surgen en los casos penales, pero su objetivo intrínseco es siempre asegurar, o contribuir a asegurar, la equidad del proceso penal en su conjunto. Por lo tanto, las garantías consagradas en el artículo 6.3 no son un fin en si mismas y, en consecuencia, deben interpretarse a la luz de la función que tienen en el contexto global del proceso»*.<sup>33</sup>

Tarteki berean aurreproiektuak aipamena egiten dio, Prozedura Kriminalaren Legeari, Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoari eta adingabeen erantzunkizun penala arautzen duen urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organkoari. Oraingoan ere, azpimarragarria da legegileak berriro lege zehatzetara jo izana, egokiagoa litekeelarik aipatutakoaren berezko eduki materiala aipatzea.

---

<sup>32</sup> ESPARZA LEIBAR I. eta ETXEBERRIA GURIDI J.F. (2021) Derecho a un proceso equitativo, I. Lasagabaster (Ed.) *Convenio Europeo de Derechos Humanos: Comentario sistemático* (4<sup>ed.</sup>), Thomson Reuters Civitas (270-271or.)

<sup>33</sup> FISCALÍA GENERAL DEL ESTADO. *Informe sobre el anteproyecto de Ley Orgánica del Derecho de Defensa*, Madrid, (29 de Diciembre, 2022) 12.or.

Harrigarria da Europar Batasuneko Oinarrizko eskubideen Gutunaren 48.artikuluari jasotzen den errugabetasun presuntzioa, subjektu pasiboaren eskubide espezifiko eta prozesu penalaren kontzeptio demokratikoaren oinarrietako bat izanik, Defentsa Eskubidearen Lege Organikoaren aurreproiektuaren 3.3.artikuluari esaldi bakar batean soilik aipatzea, gainerako xedapen batean ere erreferentzia espresurik egiten ez zaiolarik. Errugabetasun presuntzioa *iuris tantum* presuntzioa da, eta hura gailenduko da froga-jarduera egokiaren emaitza-froga nahikoa, zilegia eta karguzkoa izan arte.<sup>34</sup>

Jarraian adierazten denez, lege prozesalek aurreproiektuak aipatzen duen berdintasun eskubidea bermatu behar dute. Horrela segurtasun juridikoaren eta justizia zerbitzu publikoaren funtzionamendu egokiaren mesedetan, legegileak jurisdikzio, aurkaratze-bide eta beste jurisdikzio-konponbide batzuetara iristea baldintzatu dezake, zehazki, Defentsa-eskubidea gauzatzeko nahikoak izan beharko diren eta premia-printzipioan oinarrituta egon beharko duten eta defentsa-gabeziarik sortuko ez duten epe edo prozedura baldintzak betearaziz.

BJKN-k egoki deritza aurreproiektuan egindako aurreikuspen honi, nahiz eta adierazten duen, baldintzatze hau ezin dela oztopo bihurtu, hau da, egokia eta beharrezkoa litekeela lege prozesalek tasa-ordainketak, kostak ordaintzeko nahitaezko kondena ezartzea eta funtsik gabeko edo abusuzko demandak ez aurkezteko beste edozein neurri ezartzea, baina hauek neurrizkoak izan beharko lirakekeela, eta ez dira jurisdikziora sartzea eragozten edo galarazten duen gehiegikeriarik ezarri behar. Aspektu honi dagokionez, aipagarri da 2007ko uztailaren 26ko Walchli c. Frantzia Sententzia: *“Por otra parte, el derecho a un tribunal, del que el derecho de acceso es un aspecto, no es absoluto y esta sujeto a limitaciones implícitamente aceptadas, en particular en lo que respecta a las condiciones de admisibilidad de un recurso, ya que, por su propia naturaleza, está sujeto a la regulación del Estado, que goza de un cierto margen de apreciación a este respecto ... No obstante, las limitaciones aplicadas no deben restringir el acceso disponible para el individuo de tal manera o en tal medida que afecten a la propia esencia del derecho. Además, estas limitaciones solo son compatibles con el artículo 6.1 si persiguen un objetivo legítimo y si existe una relación razonable de proporcionalidad entre los medios empleados y el objetivo perseguido ... De estos principios se desprende que, si bien el derecho a recurrir esta por supuesto, sujeto a los requisitos legales, los tribunales deben, al aplicar las normas procesales, evitar tanto un formalismo excesivo que menoscabe la*

---

<sup>34</sup> ESPARZA LEIBAR I. eta ETXEBERRIA GURIDI J.F. (2021) Derecho a un proceso equitativo, I. Lasagabaster (Ed.) *Convenio Europeo de Derechos Humanos: Comentario sistemático* (4<sup>o</sup>ed.), Thomson Reuters Civitas (281or.)

*equidad del procedimiento como una flexibilidad excesiva que de lugar a la supresión de los requisitos procesales establecidos por la ley.”*

Auzitegiek, justizia-administrazioak eta herri-administrazioak beren jardueran egiten dituzten bitarteko elektronikoak erabiltzeari buruz mintzo da hirugarren artikulua 5.paragrafoa, defentsa-eskubidea modu efektiboan gauzatzearekin bateragarria izan behar dena, betiere legeak aurreikusitako baldintzetan. Puntu honetan, komenigarria litzateke Konstituzio Auzitegiak jasotakoa gogoratzea, eta tutela eraginkorra izateko eskubidearen eta bitarteko elektronikoak erabiltzearen artean dagoen lotura agerian jartzea: *La protección constitucional, por tanto, se proyecta específicamente sobre aquellos actos de comunicación que ha regulado el legislador y que pueden considerarse por tanto como tales: el derecho a la tutela judicial efectiva, reconocido en el artículo 24 CE. garantiza el derecho de acceder al proceso y a los recursos legalmente establecidos en condiciones de poder ser oído y de ejercitar la defensa de los derechos e intereses legítimos, con respeto de los principios de bilateralidad, contradicción e igualdad de armas procesales lo que impone a los órganos judiciales un especial deber de diligencia en el cumplimiento efectivo de las normas reguladoras de los actos de comunicación procesal, cuidando siempre de asegurar que las notificaciones, citaciones, emplazamientos, y en su caso, requerimientos, llegan a sus destinatarios dándoles así la oportunidad de actuar en defensa de sus derechos e intereses y de evitar la indefensión (STC 334/1993, de 15 de noviembre, FJ 2).*<sup>35</sup>

Komunikabide elektronikoen bidezko komunikazio-egintzak egiteari dagokionez, sententzia berean adierazten da, Konstituzio Auzitegiaren doktrinak sarritan adierazi duela bitarteko tekniko eta elektronikoen bidezko komunikazioen eremuan, hartzaileak komunikazio-egintza jaso izanaren eta haren dataren eta egintzaren edukiaren egiaztapen frogagarria berme sahiestezina dela, eta ez betetzeak azken honen deuseztasuna dakarrela, eta horrek alderdi batentzako izapide prozesalak galtzea ekarri badu, defentsa-gabeziarik ez jasateko eskubidea urratzea (EK 24.1.art)<sup>36</sup>.

Xedapen bereko seigarren tartekia aztertuz errez ondoriozta daiteke ezabatu beharrekoa dela. Lehen esaldira bagoaz, nabari dezakegu artikulua bereko lehenengo parrafoarekin alderatuz errepikakorra dela, izan ere, azken honek jada lotu baitu defentsa-eskubidea lege ezarritako

---

<sup>35</sup> Konstituzio Auzitegia, 6/2019 Sententzia, 2019ko urtarrilaren 17koa, 2.O.J

<sup>36</sup> Konstituzio Auzitegia, 6/2019 Sententzia, 2019ko urtarrilaren 17koa, 3.O.J.

prozedurari. Jarraian, *favor libertatis* interpretazio agindua adierazten du aurrelegegileak baina kontuan izanik ez dela eskubide honen maxima eskusibo bat, baizik eta Espainiar Konstituzioan jasotako eskubide gutzietan aplikatzen zaiela, ez liteke beharrezkoa bertan aipatzea.

Artikulu honekin amaitzeko, zazpigarren paragrafoak, xedapen honetan aipatutako printzipioak defentsa-eskubideari aplikatzeari buruz mintzatzen du, esanez, aplikagarri izango direla, baldin eta ekintza, eskaera edo eztabaida gauzatzen bada arbitraje prozeduretan (administrazio publikoen aurrean) edo eztabaidak konpontzeko bide egokia aukeratzen denean.

#### **d. Bigarren kapitulua**

Bigarren kapitulu honek pertsonen defentsa-eskubidea garatzen du, ondorengoak arautuz: laguntza juridikorako eskubidea; laguntza juridikoa aukeratzeko, uko egiteko eta ordezteko eskubidea; informazio-eskubidea; entzunak izateko eskubidea; laguntza juridikoaren kalitaterako eskubidea; prozesuko egintza, ebazpen eta komunikazioetan hizkera argia izateko eskubidea; auzitegietan eta Justizia Administrazioarekiko harremanetan dituzten eskubideak eta defentsa-eskubidearen babesa.

Aurreproiektuaren 4. artikulutik 11.artikulura bitarteko xedapenak jasotzen dituen “pertsonen defentsarako eskubidea” izenburua duen kapituluari dagokionez, esan daiteke pertsonen eskubideetan nolabaiteko sistematizazioa sartu nahi duela, laguntza juridikoari dagokionez, defentsa-eskubidea egikaritzeko. Antzeman dezakegu izenburua desegokia dela, argi baitago titulartasuna pertsonen dagokiela eta bestalde, ez duelako kapituluaren edukiari buruz ezer esaten. Kapituluaren edukia aztertuz ondorioztatzen da eduki heterogeneoa dela, egia bada ere, alderdi batzuetan izan ezik, defentsa-eskubidearen inguruan mintzo dela eta hau horrela izanik lege arruntaren maila izan beharko luke.

#### **Asistentzia juridikorako eskubidea (4.artikulua)**

Laguntza juridikorako eskubidearen inguruan mintzo den artikulu honen esanetan, pertsona fisiko eta juridikoek eskubide dute laguntza juridiko eraginkorra jasotzeko, beren defentsa-eskubidea egikaritu ahal izateko.

1950eko azaroaren 4ko GEEHren 6.3.c) artikuluan adierazten da, akusatu orok duela, gutxienez, bere burua defendatzeko edo berak aukeratutako defendatzaile baten laguntza izateko, eta baliabide nahikorik ez izatekotan, ofiziozko abokatu baten doako laguntza izateko, justiziaren interesek hala eskatzen dutenean. Bestalde, 1966ko abenduaren 19ko Eskubide Zibil eta Politikoei buruzko Nazioarteko Itunak (EZPNI aurrerantzean), 1977ko apirilaren 27ko instrumentu bidez berretsiak, 14. artikuluan adierazten ditu, prozesuan zehar, delitu bat leporatu zaion pertsona orok izango dituen gutxieneko bermeak. Azkenik, EK 17.3.artikuluak aitortzen du atxilotuari abokatuaren laguntza bermatuko zaiola, polizia-eginbideetan eta eginbide judizialean, legeak ezartzen duen moduan. Ez EZPNIak, ez GEEHk ezta Europar Batasuneko 25 herrialdeetako estatuburu edo gobernuburuek 2004ko ekainaren 18an aho batez onartutako Europako Konstituzioaren proiektuak ere, ez dute atxilotuaren abokatu-laguntzari buruzko aipamenik egiten atxilotuaren nahitaez bete beharreko eskubidetzat, beraz, Kontituzio Auzitegiak adierazi duen bezala, atxilotuaren abokatu laguntzari dagokionez, Espainiar Konstituzioa nazioarteko araudia baino zabalagoa eta eskuzabalagoa da, 17.3.artikuluan atxilotuari polizia-eginbideetan abokatuaren laguntza bermatzen baitio, legeak ezartzen duen moduan.<sup>37</sup>

Bigarren parrafoari erreparatuz, abokatutzako profesionali dagokie modu eskusiboan defentsa-eskubidea egikaritzeko laguntza juridikoa ematea, legeetan eta dagokion estatutu profesioaletan xedatutakoaren arabera eta Espainiako Abokatutzaren Estatutu Orokorra onartzen duen martxoaren 2ko 135/2021 Errege Dekretuaren 4.1.artikuluan ezarritako aurreikuspena jotzen du, abokatutzaren profesionalak definitzen dituena. Bertan adierazten denez, lanbide horretan jarduteko gaitzen duen titulu ofiziala izanik, abokatu profesionalak kontsideratuko dira, Abokatutza Elkargo batean lana egiten dutenak, gatazkak konpontzen dituenak eta kanpoko eskubide eta interesak (publiko zein pribatuak) defendatzen dituztenak, judizioz kanpoko bidean, bide judizialean edo arbitraje-bidean.

Defentsa eskubidea egikaritzeko laguntza juridikoaren prestazioaren izaera eskusiboa abokatutzako profesionali ezartzeak talka egiten du, alde batetik, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 23.3 artikuluekin. Bertan funtzionario publikoei beren kabuz agertzeko ahalmena ematen die, «beren

---

<sup>37</sup> URIARTE VALIENTE, L.M. eta FARTO PIAY, T. (2007) *El proceso penal español: Jurisprudencia sistematizada*, La Ley, 86.or.

*estatutu-eskubideak defendatzeko, baldin eta enplegatu publiko mugiezinak banantzea ez dakarten langileei buruzkoak badira».*

Bestetik, BJLOren 551. artikuluekin ere ez liteke guztiz bateragarria. Bertan arautzen dira; Estatua eta haren erakunde autonomoak ordezkatzeko eta defendatzeko araubide juridikoa; Gizarte Segurantzaren Administrazioa osatzen duten erakunde kudeatzaileak, zerbitzu erkideak eta izaera publikoko beste organismo/erakunde batzuk; Gorte Nagusiak, Diputatuen Kongresua, Senatua, Hauteskunde Batzorde Nagusia eta horiei lotutako edo haien mendeko organo eta erakundeak, eta autonomia-erkidegoak eta toki-erakundeak.

Gainera, nahiz eta zentzu hertsian laguntza juridikoa ez izan, Lan-arloko jurisdikzioa arautzen duen urriaren 10eko 36/2011 Legearen 18.artikuluak ezarten duenez, alderdiak berek kabuz agertu ahal izango dira, edo abokatu, prokuradore, lan-harremanetako graduatu, kolegiatu edo eskubide zibilen erabateko egikaritzan dagoen edozein pertsonari eman ahal izango diote haien ordezkaritza. Lege bereko 21.1.artikuluak aurreikusten duenez, abokatuaren defentsa eta lan-harremanetako graduatu elkargokidearen ordezkaritza teknikoa hautazkoa izango da auzialdian. Erregutze-errekurtsoan, alderdiak abokatz defendatua edo lan-harremanetako graduatu elargokide batek ordezkaturia egon beharko dute.

Zentzu honetan Konstituzio Auzitegiak ondorengoa azaltzen du: *Especialmente significativo resulta al respecto el tenor literal del art. 6.3 c) CEDH, en el que se reconoce el derecho "a defenderse por si mismo o a ser asistido por un defensor" Se pone asi de manifiesto que el que ha de ejercer el derecho de defensa es el acusado: el Letrado se limita a "asistirle técnicamente en el ejercicio de su derecho, habiéndose reiterado, tanto por nuestra jurisprudencia como por la del TEDH, que la opción por la asistencia jurídica gratuita o por la de un Letrado de elección, no puede entenderse como renuncia o impedimento para ejercer la defensa por si mismo. Ambas son compatibles, de modo que la defensa técnica no es en definitiva, sino un complemento de la autodefensa.*<sup>38</sup>

Bateraezintasun hauek direla eta komenigarria liteke aurreproiektuak proposatzen duen izaera eskusiboa ezabatzea.

---

<sup>38</sup> Konstituzio Auzitegia, 91/2000, martxoaren 30ekoa, 13.O.J

Hirugarren parrafoaren esanetan, pertsona orok bere burua defenda dezake, laguntza juridikoari uko eginez, legeak berariaz hala aurreikusten duen kasuetan. GEEAren jurisprudentziak defentsa-eskubidearen eduki tipikoak barne hartzen ditu prozesu mota guztietarako, autodefentsarako eskubidea eta laguntza teknikorako eskubidea. Abokatuaren laguntzarako eskubidea, prozesu penalaren fase guztietan aitortzen da, poliziaren lehen galdeketatik prozesua amaitu arte, eta abokatu-defendatu arteko elkarrizketen konfidentziasunerako eskubidea aitortzen da, baita polizia-galdeketaen aurretik abokatuarekin modu pribatuan kontsultatzeko eskubidea ere. GEEAren jurisprudentziarekin amaitzeko, gogoratu behar dugu, prozesu penalean abokatuaren laguntzarako eskubideak ondorengoak barne hartzen dituela: laguntza teknikoaren kalitatea, eraginkortasuna, informazioa jasotzeko eskubidea; itzulpen eta interpretarako eskubidea; poliziaren galdeketaen aurretik abokatuarekin kontsulta pribatua izateko aukera eta abokatu-bezero komunikazioen konfidentziasuna.

GEEH 6.3.c). artikulua, defentsa eskubidearen babes eraginkorra ziurtatzea helburu duenak, modu bereizian formulatu daitezkeen hiru eskubide bermatzen dizkio akusatuari, GEEAk dioenaren arabera: autodefentsarako eskubidea; berak aukeratutako defendatzaile baten laguntza izateko eskubidea eta baldintza batzuk betez gero, ofiziozko abokatu baten laguntza jasotzeko eskubidea.

Laguntza teknikoak, ofiziozko abokatu baten doako laguntzarako eskubidea<sup>39</sup> barne hartuko luke, baldintza jakin batzuetan. Norberak aukeratutako abokatu izateko eskubidea ere aitortua dago baina ez erabat; izan ere, doako laguntzari eta erabaki judizialari buruzko muga jakin batzuen menpe jar daiteke, subjeto pasiboa ofiziozko abokatu batek defendatu behar duen edo ez erabakitzeke.

Autodefentsari dagokionez, titularrari ahalmena ematen dio bere eskubide eta interes guztiak babesteko nolabaiteko jarduera gauzatzeko<sup>40</sup>, hau da, subjeto pasiboak aukera du berak pertsonalki defentsa-eskubidea egikaritzeko. GEEAren aburuz, hau ez da GEEHren 6.artikuluko betekizunen aurkakoa, betiere hori bada subjeto pasiboaren borondatea, salbu, justiziaren interesek kontrakoa eskatzean. Aldi berean adierazten du ez dela eskubide absolutua, auzitegi nazionalek erabaki dezakete justiziaren interesak abokatu bat nahitaez

---

<sup>39</sup> ikus. PKL 118, 520, 767, 768.art

<sup>40</sup> LOPEZ YAGÜES, V. (2012) *El derecho a la asistencia y defensa letrada: su ejercicio en situaciones de privación de libertad*, Tirant lo Blanch 2002, Universitat d' Alacant (Publicacions), 40.or.,



izendatzea eskatzen duela, defentsa egokia bermatzeko helburuarekin. Bestalde, delitu bat leporatzen zaion pertsona orok abokatu batez defendatua izateko eskubideari dagokionez, laguntza juridikoa eman behar zaio, polizia zaintzari edo prebentziozko espetxealdiari ekiten zaion unetik, prozesu osoan zehar, abokatu hori epaiketa justu baten funtsezko ezaugarria baita<sup>41</sup>.

Ordenamendu prozesalari dagokionez, defentsa-eskubidea erabiltzeko ahalmen bikoitza PKL 118.artikulutik ondorioztatzen da, beraz, zigor-egozpena agertzen denetik, subjeto pasiboari zuzenean esku hartzeko eta defentsa egikaritzeko ahalmena aitortzen zaio. Eskubide honen titulartasunaren ikuspegitik, gomendagarria liteke lehenik eta behin defentsa-modalitate bat edo beste aukeratzea eta autodefentsaren kasuan bete beharreko baldintzak ezarri beharko lirateke, ohikoa da, esaterako, langileen arloko administrazioarekiko auzien jurisdikzioan.

Laugarren paragrafoak doako laguntza juridikorako eskubidea bermatzeari egiten dio erreferentzia baliabideak nahikoak ez direla egiaztatzen den kasuetan, Espainiako Konstituzioak ezarritakoaren arabera. Gainera adierazten du, laguntza juridikoa zaurgarritasun bereziko egoeretan eta legez aitortutako beste egoera batzuetara hedatu behar den kasuak ere azertuko direla. Ofiziozko abokatu baten doako laguntzarako eskubidea aitortzen dio GEEHK subjeto pasiboari baliabide ekonomiko nahikorik ez duen kasuetan, berak frogatu beharko duelarik abokatuaren ordainsariei aurre egiteko nahikoa bitartekorik ez duela, nahikoa izango delarik zantzu batzuk egotearekin. Nahiz eta ofizioz izendatutako abokatu, hasiera batean, doakoa izan akusatuarentzat, inguruabar jakin batzuetan eta horretarako baliabide nahikoak izanda, sortutako gastua orgaintzea eska daiteke, aztergai dugun eskubidearen urrapenik suposatu gabe<sup>42</sup>.

Adierazgarria da, aurreproiektuak beste behin indarrean dagoen ordenamendua gogorarazte soilera mugatzen dela.

Kontuan izanik aurreikuspen hau EK 119.artikulutik eratortzen dela eta Botere Judizialaren 6/1985 Lege Organikoak 20.2.artikuluan garatu duela, ulertezina da maila organikoa duen lege

---

<sup>41</sup> ESPARZA LEIBAR, I. eta ETXEBERRIA GURIDI, J.F, (2021) Derecho a un proceso equitativo, I. Lasagabaster (Ed.) *Convenio Europeo de Derechos Humanos: Comentario sistemático* (4ºed.), Thomson Reuters Civitas (286-287 or.)

<sup>42</sup> ESPARZA LEIBAR, I. eta ETXEBERRIA GURIDI, J.F, (2015) Derecho a un proceso equitativo, I. Lasagabaster (Ed.) *Convenio Europeo de Derechos Humanos: Comentario sistemático* (4ºed.), Thomson Reuters Civitas (287.or.)

bateko xedapen bat errepikatzearen zentzua. Era berean , 2002ko apirilaren 16ko Herritarrak Justiziaren aurrean dituen eskubideen Gutunaren 40.artikuluak adierazten du herritarrak eskubidea duela abokatu kualifikatu baten doako aholkularitza eta defentsa jasotzeko eta prokuradore batez ordezkaturia izateko, legez laguntza juridikoarako eskubidea duenean.

Lantzen ari garen artikulua bostgarren lerroaldearen esanetan, ofiziozko txanden bidez izendatutako abokatutzako profesionalaren izendatze, ordezkatzeko, uko egitea eta kargutik kentzea arau berezietan xedatutakoaren arabera erregulatuko da. Aspektu honi dagokionez Kontseilu Fiskalak proposatu du *“ofiziozko txandak izendatutako abokatutzako profesionala”* terminoaren ordez *“doako laguntza juridikoaren onuradunari izendatutako abokatutzako profesionala”* terminoa erabiltzea.<sup>43</sup>

### **Laguntza juridikoa aukeratu, uko egin eta ordeztzeko eskubidea (5. Artikulua)**

Pertsona guztiek dute xedapen honen arabera, bere defentsan lagunduko dion abokatutzako profesionala askatasunez aukeratzeko eta bere zerbitzuak alde batera uzteko eskubidea. Subjektu pasiboak edozein unetan (betiere haren eskubideak eta berme prozesalak errespetatzen badira) laguntza juridikoari uko egiteko erabakia jakinarazi dezake, bere kabuz aukeratutako beste abokatu batekin jardun behar duelarik. Defentsa esleituta duen profesionala ordezkatzeko eskubidea gauzatzen denean, neurri egokiak hartuko dira bigarren tartekiaren arabera, bere gain hartzen duen profesionalak defentsarako eskubidea egoki gauzatzeko prozedurazko informazio estrategikoa eskura izan dezan.

Eskubide honek garrantzia berezia hartzen du zigor arloan, gehienbat askatasunik gabeko pertsonen kasuan. Konstituzio Auzitegiak onartu egin du eskubide honi egin dakizkiokeen murrizketen zilegitasun konstituzionala, PKL 527.artikuluko atxiloketa inkomunikatuen kasuetan.<sup>44</sup> Laguntza juridikoaren kalitatea funtsezko alderdia da pertsonen oinarrizko eskubideen eskubidea bermatzeko.

Justiziaren Eraginkortasunerako Europako Batzordeak<sup>45</sup>, Europako sistema judizialen esparruan laguntza juridikoaren kalitateari buruzko hainbat gomendio argitaratu ditu. Horietan hainbat

---

<sup>43</sup> FISCALÍA GENERAL DEL ESTADO. *Informe sobre el anteproyecto de Ley Orgánica del Derecho de Defensa*, Madrid, (29 de Diciembre, 2022), 18.or.

<sup>44</sup> Konstituzio Auzitegia, 7/2004 Sententzia, otsailaren 9koa

<sup>45</sup> Comisión Europea para la Eficacia de la Justicia (CEPEJ)

alderdi nabarmentzen dira, hala nola, abokatuen prestakuntza eta espezializazioa, profesionalen independentzia eta laguntza juridikoko zerbitzuen gardentasuna eta kalitatea.

Veneziako Batzordeak (Europako Kontseiluak zuzenbide konstituzionalaren arloan duen organo aholku emaileak) laguntza juridikoaren kalitatea aztertu du European justiziarako sarbideari buruzko txostenean. Txosten honetan kalitatezko laguntza juridiko eskuragarria eta independentea bermatzeko beharraren alde egiten da, eta profesionalen gaikuntza eta etengabeko prestakuntza bezalako alderdiak nabarmentzen dira.

Gure ordenamendu juridikoan finkatutako eskubidea izanik, ez dago aspektu honi buruzko eragozpenik.

### **Informaziorako eskubidea (6.Artikulua)**

Subjetu pasiboari, defentsa eskubidearen titularrari legez aurreikusitako prozeduren berri izateko duen informaziorako eskubidea aitortzen zaion arren, ez da zehazten noren aurrean aitortzen den eskubide hau. Hala ere, testuingurua kontuan izanik botere publikoei buruz ari dela uler dezakegu. Botere publikoen betebeharrak kolektiboak zertan datzan ere ez du zehazten xedapen honek, beraz benetan komenigarria liteke puntu hau eta ezbetetzearen ondorioak zehaztea.

Defentsa-eskubidearen titularrek eskubidea dute, defentsa bere gain hartzen duen abokatutzako profesionalarengandik ondorengo alderdiei buruzko informazioa jasotzeko:

- Gatazkaren larritasuna eragindako eskubide eta interesentzat, ondorioztatzen den uziaren arrakasta-aukerak eta gatazkak konpontzeko bitarteko egokietara jotzeko aukera
- Prozesu-estrategia egokienak
- Esku hartzen ari den gaiaren egoera eta gertatzen diren gorabehera eta ebazpen garrantzitsuak.
- Prozesuaren kostu orokorrak, lanbide ordainsariak eta kostak ordaintzera kondenatzearen ondorioak.
- Enkargu profesionaletik, legeetatik eta abokatutzan aritzearekin lotutako beste edozein betebeharretatik eratorritakoak. Alderdi hauek laguntza profesionalaren harreman juridikoaren parte dira eta hauen erregulazioa haren ezaugarrietara egokitu behar da, estatutueta eta elkargoko arauetara jo beharko dugularik, besteak beste, arau horietan

sartu beharko liratekeelako, arau-hustetzat tipifikatuz benetan eraginkorrak izan daitezten. Nolanahi ere ez dira lege organikoaren gai.

GEEHren 6.3.a) artikuluan jasotako eskubide honi dagokionez, GEEAk adierazi du ezinbestekoa dela zuzentasunean arreta handia jartzea, interesdunari akusazioaren berri ematean, informazio hori eraginkorra izan dadin. ESPARZA LEIBAR eta ETXEBERRIA GURIDI-k ohartarazten dute GEEHren 6.3.a) artikuluari buruzko jurisprudentzia, prozesu penaleko informazio-eskubideari buruzko 2012ko maiatzaren 22ko 2012/13/EB Zuzentarauarekin osatu behar dela. Azken honek eskubide eta akusazioari buruzko informazioari buruz gutxieneko arau komunak ezartzen ditu, zehazki, 6.artikuluan aurreikusten da estatu kideek, susmagarriak diren edo akusatuak diren pertsonak egotzi zaien arau-hauste penalari buruzko informazioa jasotzen dutela bermatu behar dutela, azkartasunez eta beharrezko xehetasun-mailarekin, prozesuaren ekitatea babesteko eta defentsa-eskubideak benetan egikaritzea ahalbidetzeko. Akusazioak garrantzi handia du jazarpen penalean; izan ere, honen ondorioz, prozesuari ofizialki jakinarazten zaio zein den oinarri faktiko erabakigarria, haren aurka egindako gaitzespenaren gainean. GEEHren 6.3.a) artikulua akusatuari aitortzen dio informazioa jasotzeko eskubidea, ez soilik akusazioaren kausaz, baita egindako kalifikazio juridikoaz ere, modu zehatz eta ulergarrian.<sup>46</sup>

Azpitarratzekoa da, aurreproiektuaren xedapen honek legetara jotzen duela espediente jakin baterako sarbidea arautzeko, eta honek esan nahi du ez dela eskubide absolutua, GEEAk aitortu duen bezala (Natunen c. Finlandia, 2009ko martxoaren 31koa, Dowsett c. Erresuma Batua, 2003ko ekainaren 24koa, Mirilasvili c. Errusia, 2008ko abenduaren 11koa). Ildo horretan, Konstituzio Auzitegiak eskubide hau kasu zehatzetan mugatzeko aukera onartu du, esaterako, isilpekotzat aitortutako auzi penal batean.<sup>47</sup>

Auzitegietan defentsa-eskubidea egikaritzeari dagokionez, hirugarren paragrafoak xedatzen du, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak, Estatuko Fiskaltza Nagusiak, Justizia Ministerioak (BJKN, EFN, JM aurrerantzean) eta gai horretan eskumenak dituzten autonomia erkidegoek oinarritzko informazio gehiago emango dutela prozedura judizialen ezaugarri eta betekizun orokorrei buruz, baita pertsonak eskaerak, erreklamazioak, ekintzak edo errekurtsioak aurkeztu

---

<sup>46</sup> ESPARZA LEIBAR, I. eta ETXEBERRIA GURIDI, J.F. (2021) Derecho a un proceso equitativo, I. Lasagabaster (Ed.) *Convenio Europeo de Derechos Humanos: Comentario sistemático* (4<sup>o</sup>ed.), Thomson Reuters Civitas (283-284 or.)

<sup>47</sup> Konstituzio Auzitegia, 80/2021 Sententzia, apirilaren 19koa

ahal izateko. Bestetik, defentsa-eskubidearen titularrek aukera izango dute laguntza judizialarekin, pertsoneri, administrazio publikoei edo erakunde pribatuei beharrezko informazioa edo dokumentuak eskatzeko, legeak ezarritako prozeduren eta mugen bidez.

Aurreproiektuaren 6.artikuluaren 3.apartatuaren eduki gisa proposatutako preskripzioari dagokionez, erredundantziak eta balizko ageriko kontraesanak sahiestearren, komenigarria liteke legegileak zehaztea BJKN, EFN, JM eta gai horretan eskumenak dituzten autonomia erkidegoek eman beharrezko informazioa dagozkien eskumenen eremuan ematea, kasu bakoitzean.

Kontseilu Fiskalaren ustez, adierazi beharko liteke emandako informazioak, arestian aipatutako erakunde bakoitzaren eskumen-eremuari erantzun behar diola, Abokatutzaren elkargoei dagokien eskumenetik bereiziz, eta horrek praktikan disfuntzioak ekar ditzaketen solapamenduak sahiestuko ditu.

Kontseilu Fiskalak arauketaren idazketan azken klausula bat sartzea proposatu du ondorengoa dioena: *“artikulu honetan aitortutako eskubideak izaera hori dute, Datuak Babesteko Lege Organikoan (abenduaren 26ko 7/2021) ezarritako mugak erabat errespetatuz”*.<sup>48</sup>

### **Entzuna izateko eskubidea (7.Artikulua)**

Prozesu penalean entzuna izateko eskubidea GEEHn jaso dagoen defentsa eskubidearen funtsezko elementua da<sup>49</sup>, legearen aurreko berdintasun printzipiotik eratortzen dena<sup>50</sup>, zigor-arloko prozesuan murgilduta dauden subjeto pasiboen askatasuna, duintasuna eta berdintasuna babestea helburu duenari. Entzuna izateko eskubideak zentzua ematen dio kontraesanaren edo entzunaldiaren hasierari, subjektuaren, errespetuaren eta parte-hartzearen printzipioaren adierazpen gisa. Zuzenbide-estatuaren esparruan, printzipio horrek bi dimentsio nagusi ditu: alde batetik, legegileari zuzendutako agindu bat, prozesu mota guztiak arautu ditzan, abiapuntutzat hartuta alderdiek iter osoan zehar izan behar dituztela ahalmenak, ebazpen batera iritsi arte; eta, bestetik, alderdiek era guztietako prozesuetan defendatzeko duten

---

<sup>48</sup> FISCALÍA GENERAL DEL ESTADO. *Informe sobre el anteproyecto de Ley Orgánica del Derecho de Defensa*, Madrid, (29 de Diciembre de 2022) 22.or.

<sup>49</sup> ROXIN, C. (2019) *Derecho procesal penal*. Ediciones Didot. 298-299.or.

<sup>50</sup> CARNELUTTI, F. (2018). *La prueba civil*. Ediciones Jurídicas Olejnik. (Obra original publicada en 1936)183.or

oinarrizko eskubide bat, funtsean alderdiei entzunak izatean datzana; hau da, azken erabakia osatzeko beharrezkoak dituzten asmoak alegatu eta frogatu ahal izatea, gertakariekin eta ebazpenean sor daitezkeen arauekin zerikusia duten material guztiak ezagutzea eta horiei aurka egitea.<sup>51</sup>

Xedapen honek EK 24.artikuluaren garapen organikoa jasotzen du, izan ere, babes judizial eraginkorra pentsaezina da entzunak izateko, alegazioak egiteko, dokumentuak aurkezteko eta ordenamendu juridikoak onartutako defentsa-baliabideak erabiltzeko ahalmenik gabe, prozedurari aplikatu dakioken araudiaren arabera.

### **Kalitatezko laguntza juridikoa izateko eskubidea (8.Artikulua)**

Kalitatezko letradu-laguntza izateko eskubidea aitortzen duen xedapena izan arren, arritzekoa da ez zehaztea kanonak zer parametrori egin beharko liokeen erreferentzia. Zentzu honetan, GEEAk adierazi du GEEHko 6.3.c.artikuluak laguntza juridiko “praktiko eta eraginkorra” izateko eskubidea aitortzen duela, eta adierazi du ofiziozko abokatu bat izendatze hutsak ez duela berez eskubide horren eraginkortasuna bermatzen, hura hil, gaixotu, luzaroan ezinduta egon edo bere betebeharrak sahiestu ditzakeelako<sup>52</sup>.

Auzitegiak, printzipioz, ezin du erabaki nola jardun duen letratuak baina gai zehatz horretan organo jurisdikzional nazionalak berme guztiak dituen prozesu bat bermatu duten azter dezake, horrela, hura garatzeko baldintzak egokiak diren ala ez kontrola dezake, esaterako, abokatuak bezeroarekin elkarrizketatzeko, kasua aztertze edo alegazioa prestatzeko eskeinitako denbora proposa izan den edo ez. Inguruabar hauek aztertuta, beste batzuen artean, ondoriozta daiteke defentsa egokia eta eraginkorra izan den edo, soilik formala eta itxurazkoa izan den, azken kasu honetan GEEHren 6.3.b.artikulua urratuko litekeelarik.

Bigarren tartekian adierazten denez, baliabide teknologiko eta telematikoen erabilerari buruzko araudia hartuko da kontuan baina honek ez du zerikusirik aurretik aipatutako preskripzioaren irismen eta esanahia argitzeko. Beraz, zehaztasun falta honek ezinbestekoa egiten du erreferentziatzat hartu beharreko parametroak zehaztea.

---

<sup>51</sup> AÑÓN, M. J. (2020). EL DERECHO A SER OÍDO Y LA JUSTICIA DEL PROCESO. *Teoría & Derecho. Revista De Pensamiento jurídico*, (8), 197-198.or.

<sup>52</sup> *Artico c. Italia*, 1980ko maiatzaren 13koa

## **Hizkuntza argirako eskubidea, ekitaldi, ebazpen eta komunikazio prozesalean (9.Artikulua)**

Gardentasuna eta justiziarako sarbidea funtsezko zutabe bihurtu dira demokraziarako, eta, horregatik, Estatuak, bere politiketan txertatu ditu herritarrentzat interesgarriak diren dokumentu arauen eta informazioen publikitatea. Hala ere, publikitatea, berez, ez da nahikoa, hizkuntzaren argitasunarekin batera joan behar du, ezinbesteko elementua baita informazioa ulergarria izan dadin eta herritarren beren eskubide eta betebeharren berri izan dezaten.

Hizkera argia oinarrizko eskubidea da herritarrentzat eta bereziki garrantzitsua zuzenbidearen eremuan, informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen funtsezko alderdi bat delarik, izan ere, herritarrek argi eta erraz ulertu behar dituzte prozesuko egintzak, ebazpenak eta komunikazioak, beren eskubideak baliatu eta defentsa-eskubidea behar bezala egikaritu ahal izateko, baita eremu judizialean gardentasuna bermatzeko. Egintza, ebazpen eta komunikazio prozesalean hizkera erraza eta eskuragarria erabiltzeak, informazioa eskuratzeko eta herritarren eskubideak baliatzea errazten du, justizia administrazioaren kudeaketan eraginkortasun eta efizientzia handiagoa lortzen laguntzeaz gainera.

Ez da nahikoa auzitegiek epaiak arrazoitzearekin, motibazio ulergarri bat ezinbestekoa da zuzenean partze hartzen duen herritarrek erabakiaren argudioak ezagutu ditzan eta legeak aitortzen dizkion eskubidean zuzen erabili ahal izan ditzan eta zuzenean ukitu ez dion herritarren dagokionez, epai hau baliagarria izango zaio jurisprudentzia gisa. Gainera hizkuntza argia erabiltzea tresna baliagarria da auzitegietan kudeaketa eraginkorra izan dadin. Gero eta ebazpen argiagoak eman, orduan eta zalantza eta kontsulta gutxiago planteatuko dira, ondorioz, auzitegien lan karga-txikiagoa izango da, eta beste zeregin batzuei denbora gehiago eskeintzeko aukera izango dute.<sup>53</sup>

Epaille, Magistratu eta Justizia Administrazioako Letratuei hizkera argia erabiltzea agintzen die, prozesuko egintza, ebazpen eta komunikazioetan, auzitegiek eskubide hau babesteko dutelarik. Aurreproiektuaren 9.artikulurako proposatutako idazketa egokia den edo ez ondorioztatzeko Prozedura Zibilaren Legearen 7bis.2. artikulua jasotakoa aztertu behar da.

---

<sup>53</sup> Dirección de asuntos internacionales y derechos humanos, *Lenguaje claro* (Informe 2019)

Aipatutako xedapen hau aztertuz ohartzen gara aztergai dugun arauaren 9.xedapenaren idazketa berri bat beharko litekeela manu horren edukiarekin, desgaitasuna duten pertsonen prozesuan esku hartzen dutenean prozedura-doikuntzak egiteko betebeharra jasotzen baitu. Aurreproiektuaren artikulua honek aplikazio-eremu zabalagoa izan dezakeela egia den arren, formulazioa egokia izateko beharrezkoa liteke aipatzea prozeduraren doikuntzaren kontzeptua bera edo aurretik aipatutako lege prozesal zibilaren artikulua hori. Lotura hau egiteko aukera aurreproiektuaren 17.artikuluarekin ere hautematen da, izan ere, bertan abokatuaren desgaitasunaz mintzo da. Nolanahi ere, testuak adierazten dituen laguntzez gain, legegileak NBERen Konbentzioaren 9.artikuluaren barmatzen den irisgarritasunaren kontzeptuaren sarrera baloratu beharko luke, desgaitasunen bat duten pertsonentzat.

Aproposa liteke artikulua honen bigarren paragrafoan, Fiskaltzaren ebazpenei buruzko aipamen espresua egitea, ebazpen horiek hizkera argian, modu erraz, irisgarri eta ulergarrian idazteko, eta hartzaileak ulertu ahal izateko. Alde batera utzi gabe, noski, hizkuntza tekniko-juridikoa erabili beharra, horien zehaztasuna eta kalitatea bermatzeko.<sup>54</sup>

### **Auzitegi eta Justizia Administrazioarekiko harremanetan aitortutako eskubideak (10.Artikulua)**

Abokatutzako profesionalek zerbitzua emango dutela bermatzea lehentasuna izan behar da lanbidearen erregulazioan, eta abokatuaren elkargoek zeregin aktiboagoa izan beharko lukete abokatuak ematen dituzten zerbitzuak gainbegiratzean. Nire ustez, zerbitzu juridikoen merkatuan gardentasun eta lehia handiagoa izatea lagungarria izan daiteke abokatuak ematen dituzten zerbitzuen kalitatea hobetzeko eta haien tarifak murrizteko. Baina honek ere alde negatiboa izan dezake, kalitatea murriztea ekar baitezake beharrezkoak diren bermeak ezartzen ez badira.

Aurreproiektuaren xedapen honetan, auzitegietan eta Justizia Administrazioarekiko harremanetan defentsa-eskubidearen titularrek dituzten eskubideen zerrenda heterogeneoa jasotzen du, garrantzia maila desberdinak dituztelarik. a) apartatuan Justizia Administrazioaren zerbitzura dauden agintari judizialak edo funtzionarioak identifikatzeko eskubidea jasotzen da.

---

<sup>54</sup> FISCALÍA GENERAL DEL ESTADO. *Informe sobre el anteproyecto de Ley Orgánica del Derecho de Defensa*, Madrid, (29 de diciembre, 2022), 24.or.



2002ko apirilaren 16ko Herritarrak Justiziaren aurrean dituen eskubideen Gutunaren 13.artikuluak ere jasotzen du, baina azken honek salbuespen bat txertatzen du segurtasun-arrazoiengatik justifikatua dagoen auzi kriminaletan.

Kontseilu Fiskalak ulertzen du, espresuki jaso beharko liratekeela Fiskaltza osatzen duten pertsonak, agintari judizial gisa. Fiskaltzaren egintzen moduari buruzko Estatuko Fiskaltza Orokorraren urtarrilaren 27ko 1/2005 Instrukzioak adierazten du, txosten idatzietan parte hartzen duen fiskala nominalki identifikatua egon beharko dela. Era berean, Ministerio Fiskalaren barne-funtzionamenduari buruzko urtarrilaren 30eko 1/1987 Instrukzioak ere galdatu zuen siñadurarekin batera dagokion fiskalaren izena eta abizena adieraztea.

Xedapenaren i) apartatua errepikakorra da aurreproiektu beraren 9.1.artikuluarekin, beraz, errepikapenak sahiesteko helburuarekin, aproposa liteke apartatu hau ezabatzea.

### **Defentsa eskubidearen babesa (11.Artikulua)**

Xedapen honek “Defentsa eskubidearen babesa” izenburupean ondorengoa aldarrikatzen du: *“Pertsonak eskubidea dute botere publikoen prozedura-jarduerak, bitarteko elektronikoen bidez egiten direnak barne, defentsa-eskubidearen berme guztiekin gauzatzeko”*.

Ez denez zehazten berme bezala zer ulertu behar den, ez da ulertzen ezarri nahi den arauari zer birtualtasun praktikoa aitortu behar zaion. Era berean, ez da ulertzen bigarren paragrafoan jasotakoaren zentzua, izan ere, adierazten dena da, Botere publikoei egotz dakizkiekeen defentsa-eskubideari lotutako eskubide urraketan aurrean, pertsonak eskubidea dutela legez bidezkoak diren ekintzak egikaritzeko, eta argi dago ekintza horien existentziaren legezko aitortpenak ezinbestez dakarrela ekintza horiek baliatzeko eskubidea aitortzea.

#### **e. Hirugarren kapitulu**

12.artikulutik 19.artikulura doan kapitulu hau “Laguntza juridikoaren bermeak eta betebeharrak defentsa-eskubidean” izenburuarekin txertatu da aurreproiektuan. Kapitulu honek bi atal ditu: “Abokatutzaren bermeak” eta “Abokatutzaren betebeharrak”.

### **Abokatuen zerbitzu prestazioen bermeak (12.Artikulua)**

Xedapen honetan abokatutzako profesionalak abokatu-laguntza emango dutela bermatzen da, “abokatutzako profesional” kontzeptua zehazten duelarik. Artikulu honek ez dakar ezer berririk, izan ere, ondorio honetara iristeko Espainiako Abokatutzaren Estatutu Orokorra onartzen duen martxoaren 2ko 135/2021 Errege Dekretuaren 4.artikulura jo dezakegu baita Botere Juduzialaren Lege Organikoaren 542.1 eta 544.2.artikuluetara. Azken hauetatik ondorioztatzen da, titulazioaren, elkargoko kide izatearen eta lanbide jardueraren baldintzak bete behar direla abokatu izateko eta abokatu gisa jarduteko, beraz nahikoa liteke aipatutako arauetara jotzea.

### **Abokatutzaren bermeak (13.Artikulua)**

Abokatutzaren profesionalaren eta enkargu profesionalaren bermeak adierazten dira oraingoan. Lehenengo lerroaldeari dagokionez, botere publikoek abokatutzaren jardun aske eta independentea bermatuko dutela adierazten du, defentsa-eskubidea benetan gauzatzeko oinarri moduan. Aipatu berri den aurreikuspen hau ez da propioki profesionalaren berme bat, eskubide eta interes legitimoak defendatzen dituen eta aurreproiektuan horrela adierazi beharko litekeen pertsonarena baizik. Askatasun eta independentzia profesionalera jotzea ere ez da egokia, ez baita ondo zehazten nori dagoen zuzendua eta zertan datzan. Organo Juduzialaren aurrean bada, arau prozesalek eskaintzen dituzten mugen barruan zer egintza motari dagokion zehaztu beharko liteke. Bezeroaren aurrean izatekotan, bien arteko esparruaren barruan geratuko liteke.

Bigarren paragrafoak soilik botere publikoek abokatutzako profesionalari beraien eginkizunetan zor dien errespetua aipatzen du. Xedapen honetatik ondorioztatzen da botere publikoek eta Abokatutzaren elkargo profesionalak eman behar duten bermea beren eskumenen esparruan emango dela.

### **Enkargu profesionalaren bermeak (14.Artikulua)**

Del Rosalen esanetan, bezeroak enkargu-orri bat izateko eskubidea, hau da, idatzizko kontratu bat izateko eskubidea, 1889tik Kode Zibilak dioen zerbait da, kontsumitzaileen defentsarako legea abokatutzak horri buruz duen araudi deontologikoa baino zorrotzagoa dela azpimarratu

duelarik<sup>55</sup>. Artikulu honen baitan, pertsona orok eska dezake<sup>56</sup> defentsako zerbitzu juridikoen kontratazioa idatziz formalizatzea enkargu profesionalerako orri batean edo antzeko bitarteko batean. Bertan ondorengoak jasoko dira:

- Eskubide buruzko informazioa
- Planteatutako eztabaidaren arabera jarraitu beharreko funtsezko izapideak eta hauek erabakitzeak dakartzaten ondorio juridiko nagusiak
- Aurrekontua, jardueren ondoriozko ordainsari eta kostuekin

Harreman profesionalera mugatzen dira alderdi hauek eta eginkizun nabarmena dute estatutu eta elkargo arauak, disziplina arauak bereziki.

Espainiako Abokatzaren Estatutu Orokorra onartzen duen martxoaren 2ko 135/2021 Errege Dekretuaren 27. eta 48.artikuluetan xedatutakoa kontuan hartzen bada, ikus daiteke, 14.artikulu honen arabera, enkargu-orriak izan behar duen informazioa, aipatutako 48.xedapenean ezarritakoa baino urriagoa dela<sup>57</sup>, murrizketa honi buruzko azalpenik ematen ez delarik. Gainera aipatu berri den Errege Dekretuaren 49.artikuluak, aurreko xedapeetan adierazitakoaz gain informazio osagarria emateko aukera onartzen du, bezeroak hala eskatzean.

Beraz, praktikan gatazkak sahiesteko, gomendagarria liteke 14.artikulurako proposatutako idazketan aipatutako Errege Dekretuaren 48 eta 49. artikuluetara igorpen bat sartzea.

### **Konfidentzialtasun eta sekretu profesionalaren bermea (15.Artikulua)**

Aztergai dugun aurreproiektuak, abokatzaren deontologia profesionalari bere xedapenen zati handi bat eskeintzen die eta honek legegilearen interesa aditzera ematen du, lanbide hau arautu eta sekretu profesionala eta konfidentzialtasuna defendatzeko.

EK 24.2.artikulan eta PKL 263 eta 416.2.artikulan aurreikusia dago sekretu profesionala, aurreproiektu honen 15.artikulan ere jasotzen dena.

---

<sup>55</sup> ESTEBAN ERLÉS, P. (12 de septiembre, 2022) El anteproyecto de ley del derecho de defensa a examen: hablan la ministra Llop y los abogados, *Cinco Días*

<sup>56</sup> ESTEBAN ERLÉS, P. (12 de septiembre, 2022) El anteproyecto de ley del derecho de defensa a examen: hablan la ministra Llop y los abogados, *Cinco Días*

<sup>57</sup> Ikus. EALO 27, 48 eta 49.art.

Sekretu profesionala funtsezko bermea da abokatutzan aritzeko, BJLOren 437.2.artikuluari aitortzen da eta Arau Deontologiko partikularrek eta beren Kontseilu nagusiko arduradunek ezinbesteko eskubide hau zaindu eta babesten dute, Auzitegi Gorenak horrela definitzen duelarik: *«lanbide noble honen independentziaren giltzarri da, eta haren gainean jartzen da bezeroen konfiantza, Botere Judizialaren aurrean justifika daitekeena»*<sup>58</sup>

Xedapen honen esanetan, abokatu eta haren bezeroaren arteko komunikazio guztiak konfidentzialak dira eta legean jasotako kasuetan eta baldintzetan soilik izango da posible esku hartzea. Auzi edo prozedura baten ondorioz alderdien defendatzaileen artean soilik egindako komunikazioei (komunikazio horiek gertatzen diren unea edo helburua edozein dela ere) honako hauek ezartzea aipatzen da:

- Komunikazioak konfidentzialak izanik, ezingo dira epaiketan baliatu, ez dute froga-baliorik, salbu, Prozesura Kriminalaren Legean aurreikusitakoarekin bat etorritu badira edo indarrean dagoen lanbide-erregulazioaren arabera horiek aurkeztea edo ezagutaraztea baimendu bada.
- Aurreko debekuaen aurkako agiriak onartezinak dira, edozein delarik euskarria, salbu, berariaz onartzen badute dagokien abokatuak haien ekarpena, edo jakinarazpen horiek berariaz, eta berariaz ohartarazten bada epaiketan erabili ahal izango dela.

Aipatu berri dugun abokatu eta bezeroaren arteko elkarrizketen izaera konfidentziala adierazi ondoren “legeek espresuki jasotzen dituzten kasuak” aipatzen du laugarren paragrafoan.

Legegileak 5.paragrafoan sekretu profesionalaren edukiak jasoko dituen adierazpenak jasotzen ditu:

- Defentsa-betebeharrak gauzatzearekin lotuta dauden abokatuaren dokumentu eta komunikazio guztien bortxaezintasuna eta sekretua.
- Edozein agintari, instantzia edo jurisdikzioaren aurrean deklarazioa egiteko dispentsa, lanbide-jardunaren ondorioz ezagutzen dituzten egitate, agiri edo informazioei buruz, ezar daitezkeen legezko salbuespenekin.
- Sekretu profesionala babestea bulego profesionalen sarrera eta erregistroan, erregistroaren objektu den ikerketa judizialek kanpo dauden bezeroei dagokienez.

---

<sup>58</sup> Auzitegi Gorena, Administrazio Auzien Sala, 1999ko maiatzaren 10ko Sententzia, 4.O.J

Sekretu profesionala funtsezko bermea da abokatutzan aritzeko, eta aipagarri da Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia zeinak horrela definitzen duen: *«piedra angular de la independencia de esta noble profesión, sobre la que se deposita la confianza de sus clientes, justiciables ante el Poder Judicial»*<sup>59</sup>

Sekretu profesionalaren bidez, abokatutzako profesionalen bezeroen oinarrizko eskubideak babesten dira, besteak beste, EK 24.artikuluari aitortzen den babesgabatasunik gabeko babes judizialerako eskubidea eta 18.artikuluari jasotzen den pertsonen pribatutasuna dimentsio guztietan babesten duten eskubideak, hala nola, intimitate pertsonalerako eskubidea, komunikazioen sekretua eta datu pertsonalen babesa. Halaber, abokatu-bezero arteko harremanen konfiantza eta konfidentzialtasuna babestearen zerbitzura dago sekretuaren bermea, aztertzen gabiltzan aurreproiektuaren 22.1.artikuluaren lehen tartekian adierazten den bezala.

Mintzo garen eskubide eta betebeharraren honen arau-oinarria BJLOren 542.3.artikuluari aurki dezakegu. Bertan adierazten denez, abokatuak isilpean gorde beharko dituzte beren jardueraren profesionalaren edozein moalitate dela-eta ezagutzen dituzten gertakari edo albiste guztiak, ezingo direlarik haiei buruzko adierazpenak egitera behartu. Lege prozesuetan betebeharraren profesionalak zer proiektio izango duen zehazten da, lekukoek deklaratzeko betebeharraren norainokoa mugatzeko, Espainiar Konstituzioaren aurreikusitakoaren arabera 24.2.artikuluari. Prozedura Zibileko Legeak 371.1.artikuluari men eginez, lekukoak bere egoera edo lanbidea dela-eta, galdetzen zaizkion egitatei buruz isiltasuna gorde behar badu, arrazoitu egin beharko du, eta auzitegiak, prozedura bidez ebatziko du zuzenbidean dagokiona, arrazoitze horren arabera.

Prozedura Kriminalaren Legeak 263.artikuluari, besteak beste, abokatu eta prokuradoreak salatzeko betebeharrak salbuetsita uzten du haien bezeroengandik jasotako jarraibideei dagokionez. Lege bereko 416.artikuluari auzipetuaren abokatuak lekuko gisa deklaratzeko betebeharratik salbuesten du, bere defendatzaile bezala abokatuaren esku utzitako egintzei dagokionez.

Konfidentzialtasun honek salbuespenak onartzen ditu, behar bezala justifikatzen badira eta prozesu osoan zehar epaiketa justu eta ekitatiboa izateko eskubidea eragozten ez den bitartean.

---

<sup>59</sup> Auzitegi Gorenaren Administrazioarekiko Auzien Sala, /1999 Sententzia, maiatzaren 10ekoa, 4.O.J

Subjetu pasiboak bere defentsa modu egokian antolatzeko aukera duela bermatu behar du, bere argudioak auzitegian azaldu ahal izateko, modu honetara, prozesuaren emaitzan eragiteko aukera izango du. Prozesuan zehar parte hartzeko eskubidea du, prozesuan bertan egoteko, bere aurkako akusazioen berri izateko, dokumentuak eskuratzeko, froga proposatzeko eta lekukoen galdeketan eta praktikatzen diren frogetan parte hartzeko.

Aurreproiektuan legegileak egindako proposamen hau bat dator jada azaldu den eta indarrean dagoen araudiarekin, beraz, aproposa dela esan daiteke.

### **Abokatuen adierazpen askatasunaren bermea (16.Artikulua)**

Abokatutzako profesionalaren adierazpen-askatasunaren bermeei buruzkoa den xedapen honek, botere publikoen eta alderdien aurrean prozeduran zehar askatasunez agertzeko eskubidea izango dutela adierazten du, bai ahoz zein idatziz. Kontuan izanik proposatutako xedapen hau Espainiako Abokatutzaren Estatutu Orokorra onartzen duen martxoaren 2ko 135/2021 Errege Dekretuaren 55.2 eta 58.1.artikuluaren adierazitakoarekin bat datorrela eta 2019ko martxoaren 6ko Espainiako Abokatutzaren kode deontologikoa antzeko terminoetan ageri dela bere 3.artikuluaren, ulertzen da xedapen hau aproposa dela.

### **Abokatu desgaituaren bermeak (17.Artikulua)**

Xedapen honen esanetan, desgaitasunen bat duen abokatutzaren profesionalak eskubidea du defentsa-eskubidea modu eraginkorrean egikaritzeko beharrezkoa den laguntza izateko. Berme hau praktikara eramaten da, esaterako, subjeto pasiboaren abokatu gorra denean. Kasu horretan, ahozko juizioan abokatu desgaituaren parean interprete bat jartzen da, epaiketan parte hartzen duten alderdi guztiek diotena zeinu hizkuntza bidez berari helarazteko.

Aurreproiektuaren III.kapituluaren bigarren atalak, legegileak abokatutzaren betebeharrak arautzen ditu, abokatuen jarduteko eginbehar (18.artikulua) eta eginbehar deontologikoak bereiziz (19.artikulua).

## **Abokatuen eginbeharrak (18.Artikulua)**

Ondorengo jarduteko eginbeharrak proposatzen ditu aurreproiektuak:

- Abokatutzako profesionalak Espainiar Konstituzioarekin eta gainontzeko legeekin bat etorri burutuko dituzte bere eginbeharrak. Fede prozesal ona izango dute, eta leialtasun eta zintzotasun- betebeharrak deontologikoak beteko dituzte, arreta berezia jarriko zaielarik elkargo profesionalak ezarritako jarraibideei.
- Abokatuak, interes-gatazka dagoenean, ez dute beren gain hartuko defentsa eta ez dute aholkurik emango.
- Abokatuak beren gain duten defentsa-eskubidea behar bezala gauzatzeko Justizia Administrazioak eta Herri Administrazioak eskura dituen bitarteko elektronikoak, aplikazioak edo sistemak erabili behar dituzte.

Xedapen hau, Espainiako Abokatutzaren Estatutu Orokorra onartzen duen martxoaren 2ko 135/2021 Errege Dekretuaren (EAEKO aurrerantzean) 51.artikuluaren 2 eta 3. parrafoetan jasotako interes-gatazka egoeren erregulazioarekin alderatuz gero, aurreproiektuan egiten den xedapen proposamena zorrotzegia izateagatik aipatutako Errege Dekretuaren 51.2 eta 3.parrafoetan gai honekiko erregulazioa gaitzen duela ulertzen da, azken honetan egindako adierazpenak malguagoak direlako. EAEKO 51.2.artikuluaren esanetan, abokatutzaren profesionalak ezingo du gai berean bi bezero edo gehiagoren kontura esku hartu, beren arteko interes-gatazka baldin badago, salbu eta bezero guztiek baimena ematen badute idatziz, aurretiaz modu aipatutako informatuta eta aua ez den gai edo enkargu bat bada. Era berean Abokatutzako profesionalak bitartekari lanetan parte har dezake, neutraltasun zorrotza mantenduz. Gainera ezartzen da bi bezeroen arteko interes-gatazka sortzean, abokatuak biezat jarduteari utzi beharko diola, salbu bietako baten defentsan esku hartzeko bien idatzizko baimen espresua jasotzean.

Analisi honen ondoren, segurtasun juridikoaren mesedetan, ezinbestekoa da proposatutako erregulazioa EAEKO 51.artikuluarekin bateratu eta harmonizatzea.

## **Abokatuen betebeharr deontologikoak (19.Artikulu)**

Betebeharr deontologikoei buruzko xedapen honek, abokatuek beren jardueretan fidagarritasuna bermatuko duten betebeharr deontologikoak bete behar dituztela adierazten du. Ondoren igorpena eginez, haien katalogoa Abokatzaren Estatutu Orokorrean eta Espainiako Abokatzaren Kode Deontologikoan jasotakoa izango dela adierazten du, baita erregulazio autonomiko eta Europakoan jasotakoa ere. Aurreproiektuaren 19.artikuluaren hirugarren paragrafoak, eginbeharr deontologikoak ez betetzearen ondoriozko disziplina-prozedurei dagokionez, adierazten du ofizioz hasiko direla, eskumena elkargoaren erabakiz, eta instrukzio-fasearen eta zehapen-fasearen arteko beharr bezalako bereizketa ezarri beharko dute, organo desberdinei esleituko zaizelarik.

### **f. Laugarren kapitulu**

*Abokatzaren aritzeko berme instituzionalak* izenburupean, 20-23.artikuluak aurkitzen ditugu<sup>60</sup>.

Gai prozesala ez denez eta espazio falta dela eta, ez da GrAL honetan aspektu honi buruz sakonduko.

---

<sup>60</sup> 20.art: Abokatzako Elkargo profesionali esleitzen zaie arau deontologikoak beharr bezala betetzen direla eta profesionalak beren eginkizuna betetzean babes egokia dutela ziurtatzeko defentsa-eskubidea eta aldi berean, Abokatzaren lanbide-elkargoari defentsa-eskubidearen titularrak babesteko zenbait eginkizun esleitzen zaizkie, EAEOrkin bat datorren xedapena delarik.

21.art: Lanbide-korporazioen elkargo-autonomiak, abokatzaren diharduten profesionalen elkargoek esleitura dituzten interes orokorreko zereginak modu autonomoan betetzeari eragiten dioten lege-erregulazioek, aipatutako autonomia hori kaltetzen duen erregelamendugintzarik egin ez dezatela eskatzen du. Ikuspuntu honetatik, beharrezkoa da xedapen hau berridaztea, xedapenak aipatzen dituen betebeharrak Abokatzako lanbide-elkargoari ezarri beharr zaizkiela argitzeko, beti, Abokatzaren elkargo profesionalen antolamentu-autonomiaren esparruan horiek betetzearen baldintzapean.

22.art: Espainiako Abokatzaren Kontseilu Nagusiaren Osoko Bilkurari (EAKNOB aurrerantzean) dagokio, xedapen honen arabera, kode deontologikoa interpretatzeko zirkularrak emateko ahalmena, lanbidearen jarduna antolatzeke eta elkargokideen zerbitzuen kontsumitzaile eta erabiltzaileen interesak babesteko funtzioak betez. Aurreikuspen hori bat dator proiektatutako erregulazioarekin, baina DEL ROSALen ustez, ez da beharr legean aurreikustea EAKNOB-k kode deontologikoaren interpretazio-zirkularrak argitaratu beharr dituela, baizik eta honek ebazpenak argitaratzea.

23.Art:Lehenengo paragrafoari jarraiki, Abokatzaren Kontseilu Autonomikoei eskumena izango dute disziplina-espedienteak bideratzeko eta deontologia arloko jokabideak zehazteko, baldin eta jokabide horiek, lanbidearen eremuan edo esparru ekonomikoan duten eragin larriagatik edo pertsona orori kalte ekonomikoa eragin diezaioketelako, beren autonomia-erkidegoaren barruan Abokatzaren elkargo profesional baten baino gehiagoren lurralde-eskumena gainditzen badute. Espainiako Abokatzaren Kontseilu Nagusiak izango du horretarako eskumena Abokatzaren Kontseilu Autonomikorik eratu ez den autonomia-erkidegoetan. Bigarren paragrafoak Abokatzaren Kontseilu Nagusiari ematen dio deontologia-arloko jokabideegatiko disziplina-espedienteak bideratzeko eskumena, baldin eta bi kontseilu autonomikoren edo gehiagoren lurralde-eskumena gainditzen badute.



### **g. Aurreproiektuaren xedapen gehigarriak**

Lehenengo xedapen gehigarrian nabarmentzen da, jarduera deontologikoari buruzko gardentasuna eta informazioa bermatze aldera<sup>61</sup>, Espainiako Abokatutzaren Kontseilu Nagusiak eta Kontseilu Autonomiko eskudunak elkargoaren eremuan disziplina-araubidea aplikatzeari buruzko informazio estatistikoa argitaratuko dute, eta jarduera deontologikoari buruzko informazioa gardenki zabal dadin laguntzeko neurri gisa hartzen da. Ondoren informazio estatistiko hori elkargo-erakundeen atarietan egongo da eskuragarri. Nahiz eta Kontseiluan ebazten diren deontologia-espeditenteen kopurua eta horien emaitza, jada ekitaldi bakoitzeko urteko memorian agertzen den, DEL ROSAL profesionalaren esanetan, informazio hori argiagoa eta zabalagoa izan behar da, betiere, logikoki, inplikaturako pertsonen pribatutasuna errespetatuz<sup>62</sup>.

Bigarren xedapen gehigarriak kolektibo zaugarrien babesa indartzen du, eta botere publikoei abokatutzaren elkargo profesionalekin lankidetzan aritzeko betebeharra ezartzen die, doako laguntza juridikorako sarbidea bermatzeko eta defentsa-eskubidea benetan baliatzeko<sup>63</sup>. Lehenengo paragrafoan, Abokatutzaren Elkargo Profesionalek antolatutako orientazio juridikoaren inguruko zerbitzuak adierazten ditu. Bigarren parrafoan, botere publikoei esleitzen zaie Abokatuen Elkargo Profesionalek sortutako zerbitzuak sustatzeko eta laguntzeko eginkizuna, bereziki kalteberatasun-maila handiena duten kolektiboei arreta ematea xede dutenean, esaterako, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei, adingabeei, desgaitasunen bat duten pertsoneri, hirugarren adinekoei edo baliabide ekonomikorik ez duten pertsoneri. Ildo honetan, Kontseilu Fiskalaren esanetan<sup>64</sup>, aholkularitza juridikoko zerbitzu horiek behar bezala koordinatuta egon beharko lukete biktimen laguntzarako bulegoekin.

---

<sup>61</sup> REQUEJO NAVEROS, M., SÁNCHEZ PÉREZ, I., VEIGA GUERRA, N. (12 de septiembre, 2022) Publicado el Anteproyecto de Ley orgánica del Derecho de Defensa. *Pérez-Llorca*

<sup>62</sup> ESTEBAN ERLÉS, P. (12 de septiembre, 2022) El anteproyecto de ley del derecho de defensa a examen: hablan la ministra Llop y los abogados, *Cinco Días*

<sup>63</sup> REQUEJO NAVEROS, M., SÁNCHEZ PÉREZ, I., VEIGA GUERRA, N. (12 de septiembre, 2022) Publicado el Anteproyecto de Ley orgánica del Derecho de Defensa. *Pérez-Llorca*

<sup>64</sup> FISCALÍA GENERAL DEL ESTADO. *Informe sobre el anteproyecto de Ley Orgánica del Derecho de Defensa*, Madrid, (29 de Diciembre, 2022) 35.or.

## **h. Amaierako xedapenak**

### **Lehena**

GrAL honen analisiaren hasieran azaldu bezala, aurreproiektuaren arau lerruna finkatzen du amaierako xedapen honek, lege organikoaren izaera ematen diolarik, kontuan izanik, bigarren tartekiak lege arruntaren izaera ematen diela III.kapituluari (15 eta 16.artikuluak izan ezik), IV.kapituluari eta azken xedapenei, izaera organikoa duen azken xedapenetan lehenak ezik.

Arestian azaldu bezala<sup>65</sup>, ez da Defentsa eskubidea eremu organikoan arautzen, baizik eta jada existitzen diren berme juridikoen zabalkundea bideratzea da helburua. Azken hau ez da bateragarria legegileak arauari eman nahi dion izaera organikoarekin, izan ere, legea organikoa izan ahal izateko, oinarrizko eskubide baten garapen zuzena suposatu behar du eta haren elementu nuklearrei eragin behar die, titulartasunari eta funtsezko edukiari dagokionez.

### **Bigarrena**

Eskumen-tituluei buruzko xedapen honek ezartzen du, lege organiko hau EK 149.1.1., 5., 6. eta 18. artikuluen babesean eman dela. Konstituzioko xedapen honek eskumen eskusiboak esleitzen dizkio Estatuari, Justizia Administrazioaren eta legeria prozesalaren arloan eta administrazio-prozedura erkidearen arloan, hurrenez hurren, Konstituzioaren eskubideak baliatzean eta betebeharrak betetzean espainiar guztien berdintasuna bermatzen duten oinarrizko baldintzak arautzeko.

### **Hirugarrena**

Ministroen Kontseiluari eta Justizia Ministerioko titularrari ahalmena ematen die, beren eskumenen esparruan, lege hau garatzeko beharrezkoak diren erreglamenduzko xedapen guztiak emateko, baita hura benetan betearazi eta ezarriko dela bermatzeko beharrezkoak diren neurriak erabakitzeke ere.

### **Laugarrena**

Araua Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hogeiei egunera indarrean jartzea proposatzen du.

---

<sup>65</sup> Ikus. Arau lerrunaren tartekia (6-9.or)

#### IV. EKARPENAK

GrAL honen aztergai izan den aurreproiektua zehatz-mehatz aztertu eta egin beharreko aldaketak adierazi ondoren, defentsa-eskubidearekin lotura duten eta Gipuzkoako Audientzia Probintzian praktikak egin ondoren egin ditudan hausnarketak jaso nahi izan ditut, beharbada aurreproiektu honetan txertatu eta defentsa-eskubidea garatzeko baliagarri izan daitezkeenak.

Nabarmentzekoa da Defentsa-eskubidearen legearen aurreproiektuak jarraian azalduko diren eskubideak soilik aipatu egiten dituela eta ez diela garrantzia nabarmenik ematen:

- Legeak aurreikusitako epaile arrunta izateko eskubidea
- Prozesu publikoa izateko eskubidea, atzerapenik gabekoa eta berme guztiarekin
- Ez deklaratzeko eta errudun ez aitortzeko eskubidea
- Errugabetasun presuntzioa
- Epaia arrazoitua izatearen beharra

Harrigarria bada ere, eskubide horietako batek ere ez du arreta espezifikorik jasotzen aurreproiektuan. Bestalde, ez da ezer aipatzen ondorengo aspektuen inguruan:

- Subjetu pasiboaren deklaratzeko kokalekua
- Subjetu pasiboaren deklarazioaren unea
- Doako interprete baterako eskubidea
- Defentsa prestatzeko eskubidea
- Girgiluen erabilera epaiketan zehar

**Legeak aurrez zehaztutako epaile arrunterako eskubideari** dagokionez, interesgarria da Auzitegi GORENAREN 2022ko azaroaren 28ko 847/2022 Epaia (2571/2020 erreka.), zeinak Konstituzio Auzitegiaren eta Auzitegi Gorenaren jurisprudenzia-doktrina azaltzen duen, eta agerian utzi du oinarrizko eskubide horrek adierazpen bikoitza duela: lehenik eta behin, organo judizialaren eta haren jurisdikzioaren eta eskumenaren legeko aurreterminazioa eskatzen du; baina, era berean, eskatzen du organo judizialaren osaera legeak zehaztea eta kasu zehatz bakoitzean dagokion organoa eratu behar duten kideak izendatzeko lege ezarritako prozedura

jarraitzea, izan ere, prozesu batez ulertu behar duen epailearen (edo auzitegi bateko kideen) izendapenean egon litezkeen irregulartasunak eskubide horren arau-haustea suposa baitezake.<sup>66</sup>

Adierazi bezala, aurreproiektuak 3.2.artikuluaren erreferentzia labur bat soilik egiten dio eskubide honi, eta gabezia hau benetan garrantzitsua da, prozesu batean parte izan nahi duenak eskubidea baitu Botere Judizialaren Lege Organikoarekin, lege prozesalekin eta, hala badagokio, banaketa-arauekin bat etorri eskumen organikoa eta funtzionala duen organoak ezagutu dezan eskatzeko. Azken horiek alde aurretik zehaztutako irizpide objektiboei eta orokortasun-irizpideei erantzun behar diete, behar bezalako publikitatea izan behar dute eta edonorentzat eskuragarri izan behar dira. Era berean, epailearen zehaztapena eta gai bakoitza aztertu behar duten epaimahaien osaera, bai eta kideen artean txostenen esleipena ere, alderdiekiko eta prozesuaren xedeariekiko independentzia- eta inpartzialtasun-irudia zainduz egin beharko litzateke. Gainera, zigor-arloko prozesuen ebazpenean ezingo lukete esku hartu instrukzio-fasean parte hartu dutenek.

**Berre guztiak dituen prozesu baterako eskubideari dagokionez,** honako hauek dira GEEAren jurisprudentziak bereziki garatu dituen printzipioak: alde batetik, kontraesanaren printzipioa, eta, bestetik, arma prozesalen berdintasunaren printzipioa<sup>67</sup>. Lotura estua duten printzipioak dira; izan ere, prozesu-arren berdintasun-printzipioari jarraiki, bermatu egiten da alderdi bakoitzak modu eraginkorrean erabiliko duela kontraesanaren ondorio den trukearen ondorioz lortutako informazioa, behar bezala erreakzionatzeko aukera emanez.

Kontraesan printzipioak, bere formulazio klasikoaren arabera, suposatzen du inor ezin dela aurretiaz entzuna izan gabe eta epaiketan garaitua izan gabe kondenatua izan. Alderdi bakoitzak bere uzien oinarri diren alegazioak adieraz ditzake eta gainera, kontrako alderdiak zer alegazio eta material frogagarri sortu dituen jakin ahal izango du, epaileari aurkeztu zaizkion materialak ezagutzeaz gainera, ondoren, horiei buruz zentzuz erabaki ahal izateko eta, hala dagokionean, horien aurka egiteko. Defentsa eskubidearen oinarrietako bat izanik, prozesuaren logikak berak erakusten du beharrezkoa dela kontraesana izapidetze osoan

---

<sup>66</sup> CONSEJO GENERAL DEL PODER JUDICIAL. *Informe sobre el anteproyecto de Ley Orgánica del Derecho de Defensa*, Madrid, 2023, 38.or.

<sup>67</sup> *Dilipak eta Karakaya c. Turquía*, 2014ko martxoak 4ko Sententzia, 76.ap.

bermatzea, barne hartzen delarik, deklarazio-fasea eta, batzuetan, betearazpen-fase eta kautelazko jurisdikzio jarduera.<sup>68</sup>

Arma-berdintasunaren printzipioa bereziki prozesu penalean pentsatuta dago. Prozesu penalean, alderdien arteko oreka hauts lezaketen subjektu eta alderdi instituzionalak daude (polizia judiziala, Ministerio Fiskala), horietako baten nagusitasuna erraztuz eta, ondorioz, aurkariaren desabantaila sortuz. Armen berdintasuna, bistan denez, erabakigarria izango da defentsarako eskubidearen eraginkortasunerako, eta hori lortzen ez bada, defentsa-gabezia sortuko da. Beraz, nahitaezkoa da eztabaida prozesala sustatzea, akusazioaren eta defentsaren arteko benetako aukera-berdintasuna errespetatuz.<sup>69</sup>

**Bidegabeko atzerapenik gabeko prozesu baterako eskubideari** dagokionez, irizpide batzuek horiek hautematea ahalbidetzen dute, hala nola, prozesuaren iraupen osoa (auzaldian hasten denetik epai irmo bidez behin betiko ebazten den arte), eta betearaztea. Halaber, kasuaren konplexutasuna (irizpide objetibo bezala)<sup>70</sup>, mota bereko prozeduren batez besteko iraupena, alderdien jokabidea, organo judizialen jarduna<sup>71</sup> eta jokoan dauden interesen garrantzia, bereziki, haien askatasunari, osasunari, enpleguari edo adingabeen eta bereziki kalteberak diren pertsonen eskubide eta interesei eragiten dienean. Gainera, bidegabeko atzerapenek eragin behar dute, batetik, subjektu pasiboaren erantzukizuna arintzean (legez aurreikusitako baldintzetan), eta bestetik, Estatuak ondare-erantzukizuna izatea justizia-administrazioaren funtzionamendu txarraren ondorioz.<sup>72</sup>

**Subjektu pasiboaren deklarazioari** dagokionez, Ahozko epaiketan frogak egiteko hurrenkera PKL701.artikuluari adierazten da. Xedapen honen esanetan, froga-eginbideak eta lekukoak azterketa, Fiskaltzak eskatutako ordenaren arabera egingo dira, ohikoa baita lehen deklarazioa

---

<sup>68</sup> ESPARZA LEIBAR, I. eta ETXEBERRIA GURIDI, J.F, (2021) Derecho a un proceso equitativo, I. Lasagabaster (Ed.) *Convenio Europeo de Derechos Humanos: Comentario sistemático* (4<sup>o</sup>ed.), Thomson Reuters Civitas (266.or.)

<sup>69</sup> ESPARZA LEIBAR, I. eta ETXEBERRIA GURIDI, J.F, (2021) Derecho a un proceso equitativo, I. Lasagabaster (Ed.) *Convenio Europeo de Derechos Humanos: Comentario sistemático* (4<sup>o</sup>ed.), Thomson Reuters Civitas (267-268.or.)

<sup>70</sup> ESPARZA LEIBAR, I. y ETXEBERRIA GURIDI, J.F, (2021) Derecho a un proceso equitativo, I. Lasagabaster (Ed.) *Convenio Europeo de Derechos Humanos: Comentario sistemático* (4<sup>o</sup>ed.), Thomson Reuters Civitas (274 or.)

<sup>71</sup> *Testigos de Jehova c. Austria*, 2008ko uztailaren 31ko Sententzia, 115.ap.

<sup>72</sup> CONSEJO GENERAL DEL PODER JUDICIAL. *Informe sobre el anteproyecto de Ley Orgánica del Derecho de Defensa*, Madrid, 2023, 39.or.

akusatuarena izatea proposatzea. Hala ere, aipatu dugun artikulua azken bi parrafoek aukera ematen dute lehentasun ordena aldatzeko.

Estatu Batuetako sisteman, argi ikusten da akusatuak ez duela inoizko betebeharririk testigantza emateko. Are gehiago, fiskaltzak ezin du akusatuaren galdeketa eskatu, eta haren defentsari baino ez dagokio ahal hori. Egia da, hala ere, deklaratzeko erabakitzen badu, behartuta dagoela fiskaltzaren galderei erantzutera ez ezik, egia esatera ere.

Suposa daiteke, Espainiar zigor-arloko auzipetze-sisteman akusatuaren deklarazioa lehenengo proposatzea, azalpen errugabetzaile bat lehenbailehen emateko ohitura sustraituan oinarritzen dela. Bere oinarrian guztiz kontrakoa den errugabetasun-presuntzioaren printzipioa benetan barneratzeko gabezia egon daiteke, kontua ez baita akusatuak bere errugabetasunaren zergatia azaltzea (hara gutxiago zure kontra dauden frogak ezagutu gabe), baizik eta akusatzaileak subjektu pasiboaren erruduntasuna frogatzea. Beste modu batera esanda, akusazioa da epaiketa irabazi behar duena, ez da akusatua hura galtzea ekidin behar duena.<sup>73</sup>

Zentzu honetan, ahozko judizioaren egiturari buruzko Prozedura Kriminalaren Legea erreformatzeko egungo lege-aurreproiektuaren zioen azalpenaren LXXI atalak adierazten du akusatuaren hasierako deklarazioaren egungo sistemak errugabetasun-presuntzioa desitxuratzen duela.

Lehenik eta behin, gainerako frogak egitea eta, ondoren, akusatuari galdetzea liteke logikoena, hark froga horiei eta horien emaitzei buruzko iritzia eman dezan eta gainerako lekukoak testigantzetan eraginik izan ez dezan. Akusatuak prozedura amaitzean azken hitza hartzeko eskubidea duela argudiatzen dute ikuspuntu honen aurka daudenek, harritzekoa ikusten dutelarik deklarazio bikoitz hau egitea, baina MARCOS GARCÍA MONTES eta MARCOS GARCÍA ORTEGAREkin bat eginez, iritzi hori okerra da, izan ere, azken hitza emateko eskubidea autodefentsarako eskubidearen adierazpen garrantzitsuena da, eta erabat lotua dago, EK 24.2.artikuluaren, GEEH 6.2. eta 3.c.artikuluaren eta Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko

---

<sup>73</sup> CRESPO BARQUERO, P. (2020). La igualdad de armas y la asimetría acusación-defensa en un proceso penal basado en la presunción de inocencia: (Referencia al anteproyecto de Ley de Enjuiciamiento Criminal de 2011 y la propuesta de Código Procesal Penal de 2013). *Teoría & Derecho. Revista De Pensamiento jurídico*, (16), 259.or.

Itunaren 14.1.eta 3.d.artikuluak aldarrikatuta dauden berme guztiak dituen prozesu publiko baterako eskubidearekin, baita eskubide horiek defendatzeko frogabideak erabiltzearekin.<sup>74</sup>

Epaiketa, akusatuak akusazioa ukatzen duen deklarazioarekin hasten bada, eztabaidaren gainerakoa erraz kontzentratuko da ezeztapen-ariketa batean, hau da, alderdi akusatzailearen bertsioa akusatuarena baino sendoagoa dela egiaztatzeko ahaleginean, edo, gauza bera dena, honena hain sinesgarria ez izatearen itxura ematean. Aski izango da auzitegia konbentzitzea akusazioaren arrazoiketa defentsarena baino arrazoizkoagoa dela kondena lortzeko. Gure buruari galde diezaiokegu ea ez den hori gertatzen Espainian egiten diren epaiketen ehuneko handi batean, guztietan ez esatearren. Subjektu pasiboak epaiketa hasieran deklaritzen badu, itsu-itsuan hitz egiten du, eta ez hori bakarrik; gainera, esaten duenak eragina izan dezake ondoren egiten den frogaren objektuan eta edukian. Zalantzarik gabe, errugabe deklaratu den akusatuaren deklarazioaren moduak eta denborak erabat baldintzatzen du errugabetasun-presuntzioaren eraginkortasuna epaiketan.<sup>75</sup>

Legegilearen asmoaren interpretazio nabarmenki okerrean oinarritua dagoen tradizio hau, CRESPO BARQUEROren ustetan, gaur egun akusatuaren berme-erregimenaren aldaketari eusten dion oinarri bakarra izatea, harrigarria da. Horregatik, 2011ko aurreproiektuak zehatzago berreskuratu zuen 1882ko PKLren arrazoizko bultzada modernizatzailea<sup>76</sup>. Ondorengo zioen testu zapuztuaren 567.5.artikuluak: *“El acusado sólo prestará declaración si así lo desea, a instancia de su abogado, en el turno de prueba de la defensa y en el momento que ésta considere oportuno. La declaración del acusado podrá ser propuesta en cualquier momento del juicio hasta la terminación de la fase probatoria aun cuando no haya sido incluida en el escrito de defensa. El tribunal en ningún caso podrá rechazarla”*

Lekukoen eta akusatuaren deklarazioen ordena tradizionala aldatzea, subjektu pasiboaren defentsa-eskubiderako onuragarria dela izango litekeela eta bidezko epaiketatzat jotzen denaren bermeak gehiago errespetatuko lituzkeen jurisprudentzia aldatzea beharrezkoa dela kontsideratzen dudan arren, Auzitegi Gorena ez da momentuz aldaketa honen aldekoa. 2018ko maiatzaren 17ko epaian, akusatuaren galdeketa akusazioak proposatutako frogak gauzatu

<sup>74</sup> GARCÍA MONTES, M. y GARCÍA ORTEGA, M. (22 de septiembre 2022), El acusado en el juicio debe declarar después de realizada toda la prueba, no el primero, como ahora. *Confilegal*

<sup>75</sup> CRESPO BARQUERO, P. (2020).La igualdad de armas y la asimetría acusación-defensa en un proceso penal basado en la presunción de inocencia: (Referencia al anteproyecto de Ley de Enjuiciamiento Criminal de 2011 y la propuesta de Código Procesal Penal de 2013). *Teoría & Derecho. Revista De Pensamiento jurídico*, (16), 259.or.

<sup>76</sup>CRESPO BARQUERO, P. (2020).La igualdad de armas y la asimetría acusación-defensa en un proceso penal basado en la presunción de inocencia: (Referencia al anteproyecto de Ley de Enjuiciamiento Criminal de 2011 y la propuesta de Código Procesal Penal de 2013). *Teoría & Derecho. Revista De Pensamiento jurídico*, (16), 260.or.

ondoren egitea logikaren barruan sartzen dela aitortu ondoren, zuzeneko igorpena egiten du 2015eko apirilak 30eko epaira non adierazten den: *“Con independencia de la valoración que pueda realizarse desde una perspectiva teórica o de lege ferenda sobre cuál debería ser el momento más adecuado para la declaración de los acusados en el juicio oral, lo cierto es que un usus fori muy consolidado sitúa esta declaración al comienzo del juicio, con el fin de precisar la versión de los acusados delimitando así las cuestiones fácticas controvertidas. [...]Esta dinámica judicial usual contribuye a esclarecer y simplificar el desarrollo del juicio, al concretar los hechos que deben ser acreditados por la acusación, y evitar la dilación que conllevaría desarrollar un esfuerzo probatorio específico para tratar de demostrar datos o elementos fácticos, centrales o meramente periféricos pero relevantes, que son admitidos por los propios acusados [...] A través de esta declaración inicial, y del derecho a la última palabra, los acusados pueden ejercer doblemente su derecho a expresarse sobre la acusación formulada contra ellos, tanto al comienzo del juicio como al final.”*<sup>77</sup>

GEEHren 6.artikulua eta EK 24.artikulua kontuan izanik, akusatua deklaratzea, epaiketan entzuteko aukera ematen duen heinean, oinarrizko eskubide eta defentsa-bitarteko gisa eratzeko da, eta frogabide gisa soilik modu residual batean, beraz, subjektu pasiboaren galdeketa akusazioak proposatutako kargu-froga ondoren egin behar da. Praktikan, gero eta maizago planteatzen da, aurretiazko kuestio gisa. Eskaera hau Auzitegi Gorenak ematen duen arrazoibidean oinarritzen da: *“Entra dentro de la lógica, si se concibe la declaración del acusado como un medio de defensa y no como una prueba de acusación, aunque pudiera tener efectos incriminatorios, su interrogatorio se intentará una vez practicadas las pruebas, de forma que pudiera reaccionar, en ejercicio adecuado de su derecho de defensa, frente a los elementos incriminatorios que hubieren resultado de aquellas.”*<sup>78</sup>

GEEAk, hainbat modutan interpretatu du bidezko epaiketa izateko eskubidea urteetan zehar, eta kasu batzuetan lekuko deklazioen ordena prozesuaren ekitateari eragiten dion faktore bat izan daitekeela ezarri du, esaterako, Doorson v. Herbeheren kasuan: *“El orden en que se presenta la prueba en el juicio puede tener una importancia significativa para la equidad del proceso. En particular, el tribunal está convencido de que la posibilidad de que los testigos de cargo declaren antes que los testigos de descargo y antes del acusado puede afectar*

<sup>77</sup> Auzitegi Gorena 259/2015 Epaia, apirilaren 30ekoa, 3.O.J

<sup>78</sup> Auzitegi Gorena, 726/2016 Epaia, 2016ko urriaren 4koa



*la capacidad del acusado para desafiar las pruebas en su contra*<sup>79</sup>”. Garrantzitsua da kontuan izatea kasu bakoitza bakarria dela eta GEEAk kasu bakoitzaren inguruabar espezifikoak aztertzen dituela, bidezko epaiketa bat izateko eskubidea errespetatu den zehazteko.

Zalantzarik gabe, enkausatuaren deklarazioak sinesgarritasuna eman diezaioke kargu-frogari, bai haren emaitza materiala berresten duelako, bai frogatutako egitateak interpretatzeko eta baloratzeko elementurik ematen ez duelako, akusatzailearen bertsioaren aurka egiten badu; baina amildegi kontzeptual bat dago horren eta delituaren erantzulea dela aitortzen ez duen akusatuaren adierazpena bera, kondenaren oinarri bihurtzearen artean. Eztabaida akusazioaren sinesgarritasunari buruzkoa izan behar da, ez defentsarenari buruzkoa<sup>80</sup>.

Subjetu pasiboak azken instantzian deklaratzeko bere defentsa-eskubiderako hobekuntza bat izango litekeela kontsideratzen dudana bezala, **ahozko juizioan bere abokatuaren alboan jartzea** ere ezinbestekoa dirudit. Gipuzkoako Audientzia Probintzian egindako praktiketan, epaiketa ia guztietan aspektu hau errespetatu da, gainontzeko probintzietan ez bezala. Magistratu eta Fiskalekin aspektu honi buruz hitz egitean, denek dute aldeko iritzia. Hauen aburuz, modu honetan akusatua modu zuzenean egon daiteke kontaktuan bere defendatzailearekin, esaterako, folio baten bidez, testiguen galdeketa burutu bitartean galderaren bat egitea proposa diezaioke edo testiguen batek gezurra dioela jabetzean bere abokatuari komunikatu eta galdeketa norabidean eragin dezake.

Bestalde, ez da ahaztu behar akusatuen aulkian esertzeak psikologikoki duen pisua bai akusatu berarentzat baita sozialki bertan esertzeak gizartearen aurrean izan dezakeen inpaktua ere. Kontuan izan behar da zentzu honetan, subjeto pasiboa kokatzen den leku tradizionalaren eta Tribunalaren artean dagoen koxka edo espaloiak subjeto pasiboari goruntz begiratzea derrigortzen diola eta honek psikologikoki suposa dezakeena.

Aspektu honi dagokionez, Auzitegi Gorena 2005 urtetik zigor-arloko auziperatuak beren abokatuaren ondoan eseri ahal izatearen alde agertu da: *“parece llegado el tiempo de diseñar un nuevo escenario de las audiencias penales que sitúe al acusado junto con su letrado. Con ello se conseguiría una más efectiva asistencia jurídica que se vería potenciada por la propia*

<sup>79</sup> *Doorson c. Herbeherak*, Sententzia, 1996ko martxoaren 26a, 70.par

<sup>80</sup> CRESPO BARQUERO, P. (2020). La igualdad de armas y la asimetría acusación-defensa en un proceso penal basado en la presunción de inocencia: (Referencia al anteproyecto de Ley de Enjuiciamiento Criminal de 2011 y la propuesta de Código Procesal Penal de 2013). *Teoría & Derecho. Revista De Pensamiento jurídico*, (16), 260.or.

*cercanía física, y, al mismo tiempo se pondría fin a una irritante desigualdad existente en relación a la Ley del Jurado, [...] parece claro que el juicio de ponderación debe inclinarse en favor de la superior entidad que tiene -que tendría- para el mejor desarrollo del derecho de defensa que, el letrado estuviese situado junto a su cliente/defendido, en comunicación permanente con él.*”<sup>81</sup>

Epai berriagoek adierazten dutenez, defentsa-eskubidearen eraginkortasunak akusatuaren eta abokatuaren arteko benetako harremana galdatzen du, eta kontaktu hori jarraia izatea gomendatzen da<sup>82</sup>, gai edo strategiaren bat kontsultatzeko. Esan beharra dago, akusatua eta bere abokatu elkarrekin esertzea ez dela guztiz arraroa gure prozeduretan, izan ere, Zinpekoen Epaimahaiaren Legeak 42.2.artikuluari aurreikusi du. EDUARDO GOMEZEN esanetan<sup>83</sup>, eta berarekin bat eginez, ez da ulergarria aspektu hau zigor-arloko gainerako epaiketetara eraman ez izana, Prozedura Kriminalaren Legeak ere ez baitu ezartzen. Legez arautua ez dagoenez eta jurisprudentzia praktika honen aldekoa denez, beharrezkoa da aurreproiektu honetan isladatzea horrela baino ezin baita bermatu kalitatezko defentsa-eskubidea, eraginkorra eta epaiketa justutzat jotzen denaren nazioarteko estandarrei egokitu.

GEEHren 6.3.e.artikuluari akusatuari aitortzen zaion oinarrizko eskubideetako bat da **doako interprete baterako eskubidea**, epaiketan erabilitako hizkuntzan hitz egin ezin badezake edo hizkuntza ulertzen ez badu, izan ere, horrela egingo ez bailitz defentsa eraginkorra arrisku larrian egongo liteke argi eta garbi. Europar Batasun mailan bada eskubide hau garatzen duen 2010/64/EB Zuzentaraua, 2010eko urriaren 20koa, prozesu penaletan interpretatzeko eta itzultzeko eskubideari buruzkoa, GEEHren 6.artikuluak eta Europar Batasunerko Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 47. eta 48.2.artikuluak ezarritako gutxieneko arauak garatzen dituen.

Zigor-arloko prozesuan doako interpretea izateko eskubidea funtsezkoa da auzitegiaren hizkuntza hitz egiten ez duten pertsonen defentsarako eskubidea bermatzeko. Harrigarria dirudit aurreproiektu osoan interprete baterako eskubideari buruzko aipamenik ez egitea, ezinbestekoa baita Europako testuingurua, migrazio-mugimenduak eta eskualdetako egitura demografikoa kontuan hartzea, izan ere, etorkizun hurbilean izpide dugun eskubidearen

---

<sup>81</sup> Auzitegi Gorena, 291/2005 Epaia, martxoaren 2koa, 4.O.J

<sup>82</sup> Auzitegi Gorena 495/2018 Epaia, urriaren 23koa

<sup>83</sup> GOMEZ CUADRADO, E. (12 de noviembre, 2019). El acusado en un procedimiento penal debe declarar en último lugar durante el juicio y sentarse junto a su abogado. *Abogacía Española Consejo General*

erabilera nabarmen handitzea ekar dezake.<sup>84</sup> Interpretaren figura bereziki garrantzitsua da Europar Batasunean; izan ere, pertsonen zirkulazio askearen eta hizkuntza aniztasunaren ondorioz, interprete bat egotea funtsezkoa da inplikaturako pertsonen oinarritzko eskubideak babesteko, alderdien arteko arma-berdintasuna bermatzeko eta defentsa-eskubidearen urraketa sahiesteko, izan ere, interpreterik gabe, auzitegiaren hizkuntza hitz egiten ez duten pertsonak bere aurkako akusazioak ez ulertzeko arriskua dute, haien defentsan behar bezala mintzatzeko aukerarik izan gabe.

GEEAren iritziz, ez da nahikoa akusatuaren abokatuak auzitegian erabilitako hizkuntza ezagutzea baizik eta epaiketa justua izateko eskubideak barne hartzen du, gainera, entzunaldian parte hartzeko eskubidea. Akusatuak prozedura ulertzeko eta bere abokatuari bere defentsan egin beharreko edozein punturen berri emateko gai izan behar du, azken xedea tokiko hizkuntza ez jakitea konpentsatuko duen baliabide gehigarri eta espezifikoko baten bidez, berme guztiak dituen prozesu bat ziurtatzea izango delarik.<sup>85</sup> GEEAk zehaztu du aztergai dugun eskubide honetan barne hartzen dela prozeduraren fase desberdinetan sortzen diren dokumentu desberdinen idatzizko itzulpena lortzeko eskubidea. Zentzu honetan, agintariek interprete bat izendatu beharko dute, honen interpretazio-lanaren kalitatearen eta nahikotasunaren nolabaiteko kontrola ziurtatu beharko dutelarik.

Bestalde, gogoratu behar dugu interpretazioaren doakotasuna barnebiltzen duela xedapen honek, hau da, ezin zaizkio akusatuari interpretazio gastuak erreklamatu (salbu, akusatua epaiketara agertzen ez den kasuetan), zerbitzu horiek ematea Estatu batek bere zigor-arloko justizia-sistema antolatzeko behar duen baldintzetako bat baita GEEAren arabera.<sup>86</sup>

**Defentsa presatzea** funtsezko bermea da edozein prozesu judizialean, honek aukera ematen baitio akusatuari bere defentsa-eskubidea modu eraginkorrean gauzatzeko eta prozesuan aktiboki parte hartzeko. Eskubide honek hainbat alderdi biltzen ditu, hala nola, akusazioari

---

<sup>84</sup> ESPARZA LEIBAR, I. eta ETXEBERRIA GURIDI, J.F. (2021) Derecho a un proceso equitativo, I. Lasagabaster (Ed.) *Convenio Europeo de Derechos Humanos: Comentario sistemático* (4<sup>o</sup>ed.), Thomson Reuters Civitas (290.or)

<sup>85</sup> ESPARZA LEIBAR, I. eta ETXEBERRIA GURIDI, J.F. (2021) Derecho a un proceso equitativo, I. Lasagabaster (Ed.) *Convenio Europeo de Derechos Humanos: Comentario sistemático* (4<sup>o</sup>ed.), Thomson Reuters Civitas (291.or)

<sup>86</sup> ESPARZA LEIBAR, I. y ETXEBERRIA GURIDI, J.F. (2021) Derecho a un proceso equitativo, I. Lasagabaster (Ed.) *Convenio Europeo de Derechos Humanos: Comentario sistemático* (4<sup>o</sup>ed.), Thomson Reuters Civitas (292.or)

buruzko informazioa eskuratzea, defentsarako frogak eta argudioak aurkezteko aukera izatea, eta abokatu baten laguntza.

GEEHren 6.3.b. artikuluan aurreikusten den eskubide hau funtsekoa da, subjeto pasiboak egozten zaizkion egitate eta lortu nahi diren ondorio juridikoen berri izan ondoren, honen defentsarako-eskubidea modu eraginkor eta zehatzean bermatzeko, horretarako behar den denbora eta erraztasunak emanez.<sup>87</sup> Aldi berean, eskubide honek barne hartzen du akusatuak abokatuaren laguntza jasotzeko eta hari kontsulta egiteko aukera, hura defendatzeko ezinbestekoa baita.

Hala ere, GEEAk ohartarazi duenez, akusatuari eskaini beharreko denbora eta erraztasunak kasu bakoitzaren inguruabarrak kontuan hartuta ebaluatuko dira<sup>88</sup>, bereziki: prozeduraren izaera, kasuaren konplexutasuna, kausaren egoera, auzipetze-autoan eman daitezkeen aldaketa edo Fiskaltzak froga berriak sartzea<sup>89</sup>. Aipatutako erraztasunei dagokionez, prozedura kontraesankorra, armen berdintasuna eta akusatuaren interesak babesteko berme egokiak gauzatzeko baldintzak bete diren azter dezake GEEAk.

GEEAren iritziz, GEEHren 6.3.b artikulua lesionatu egiten da akusatuaren eta haren abokatuaren arteko kontaktuak instrukzio-epailearen zaintzapean daudenean<sup>90</sup>, baita espedienteko dokumentuak behar bezala eskuratzeko zailtasunak daudenean eta abokatuei egindako bisiten kopurua eta iraupena mugatzen direnean<sup>91</sup>, edo interesdunek auzia defendatzeko baliagarritzat jotzen dituzten alegazioak aurkeztu ezin dituztenean<sup>92</sup>.

Eskubide hau GrAL honen aztergai izan den aurreproiektuan txertatzea funtsezkoa da bertan garatu nahi den defentsa-eskubidea borobiltzeko eta hasieran aipatu diren aurreproiektuaren helburuak ganoraz betetzeko.

---

<sup>87</sup> ESPARZA LEIBAR, I. y ETXEBERRIA GURIDI, J.F, (2021) Derecho a un proceso equitativo, I. Lasagabaster (Ed.) *Convenio Europeo de Derechos Humanos: Comentario sistemático* (4<sup>o</sup>ed.), Thomson Reuters Civitas (285.or)

<sup>88</sup> *Iglin c. Ucrania*, 2012ko urtarrilaren 12 ko Sententzia, 65.ap.

<sup>89</sup> ESPARZA LEIBAR, I. y ETXEBERRIA GURIDI, J.F, (2021) Derecho a un proceso equitativo, I. Lasagabaster (Ed.) *Convenio Europeo de Derechos Humanos: Comentario sistemático* (3<sup>o</sup>ed.), Thomson Reuters Civitas (291.or)

<sup>90</sup> *Lanz c. Austria* Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren 2002ko urtarrilaren 31ko epaia

<sup>91</sup> *Ocalan c. Turkia* Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren 2003ko martxoaren 12ko epaia

<sup>92</sup> *Torrents c. Espainia* Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren 2000ko urtarrilaren 6ko epaia

Aurreproiektua isilik mantentzen da **errugabetasun-presuntzioaren** inguruan. Lehenik eta behin argitu behar da ez dela presuntzio bat, konstituzio-berme bat eta oinarrizko eskubide bat baizik, «Presuntzio» terminoa XVIII. mendeko lexikoaren ondorio delarik.<sup>93</sup> Errugabetasun-presuntzioaren printzipioa, gizaki oro errugabe jotzea da demokraziaren legeen mendeko prozesu penal batean kontrakoa frogatzen ez den bitartean.<sup>94</sup> Giza Eskubideen Gorte Interamerikarrak ezarri duenez, "errugabetasun-presuntziorako eskubidea bermeen oinarria da", eta horrek ez du eragozten jazarpen penala, baina arrazionalizatu eta auzipetu egiten du, prozesu penalaren oinarrizko eta egiturazko berme bat delarik.<sup>95</sup>

Defentsa-eskubidearen funtsezko printzipio honek oinarrizko aurreikuspenen bat izan behar du, hala nola, azaldu egin behar da presuntzio horren esanahia, zehazki, akusatutako pertsonak errugabetzat jo behar direla eta ondorio guztietarako hala tratatu behar direla zigor-arloko kondena gertatu arte. Kondena hori froga nahikoetan oinarritu behar da, auzitegi inpartzial batek, arrazoizko zalantza orotatik haratago, akusatuaren erruduntasunari buruzko uste sendoa izan dezan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko martxoaren 9ko 2016/343 (EB) Zuzentarauak eskatzen duen bezala, bai tratamendu-arauaren dimentsioan, bai epaiketa-arauaren dimentsioan. Ondorengo dio CRESPO BARQUEROk ildo honetan: ***Si no hay expectativa fundada de condena no debe haber acusación, y si no hay expectativa fundada de acusación no debe haber proceso. Esas son exigencias inmanentes de un sistema de garantías basado en la presunción de inocencia. Pero la función de un proceso penal verdaderamente propio del Estado democrático no puede ser justificar o validarla condena "salvando los obstáculos" que derivan de las garantías del acusado, sino asegurar que esa condena solo podrá producirse si la acusación queda probada con pleno respeto de esas garantías, más allá de toda duda razonable***<sup>96</sup>. Jarrera honek, prozesu penal demokratikoaren funtsa erakusten du: akusatua, errugabea ustez, leporatzen dioten egitateetatik eraginkortasunez defendatu ahal izatea da kontua, defentsa eraginkortzat hartzen delarik, epaile inpartzial baten aurrean erruduntasunari buruzko zalantza bat ezartzeko arma

---

<sup>93</sup> GÓMEZ COLOMER, J.L. (2019). Presunción de inocencia. *Teoría & Derecho. Revista De Pensamiento jurídico*, (26), 179–198.

<sup>94</sup> GÓMEZ COLOMER, J.L. (2019). Presunción de inocencia. *Teoría & Derecho. Revista De Pensamiento jurídico*, (26), 179–198.

<sup>95</sup> NOGUEIRA ALCALÁ, H. (2005). Consideraciones sobre el derecho fundamental a la presunción de inocencia. *Ius Et Praxis*, 11(1), 221–241.

<sup>96</sup> CRESPO BARQUERO, P. (2020). La igualdad de armas y la asimetría acusación-defensa en un proceso penal basado en la presunción de inocencia: (Referencia al anteproyecto de Ley de Enjuiciamiento Criminal de 2011 y la propuesta de Código Procesal Penal de 2013). *Teoría & Derecho. Revista De Pensamiento jurídico*, (16), 259.or. 226-227.or.

egokiak izatea.<sup>97</sup> Konstituzio Auzitegiak zentzu honetan azaltzen du, errugabetasun-presuntzioak, akusatua kondenarik ez jasateko duen eskubide bezala funtzionatzen duela, baldin eta erruduntasuna arrazoizko zalantza orotatik haratago ezarri ez bada, kargutzat har daitezkeen eta berme guztiekin lor daitezkeen frogen bidez.<sup>98</sup>

Aipatutako zuzentarau horren bidez, errugabetasun-presuntzioaren alderdi jakin batzuk eta epaiketan egoteko eskubidea indartzen dira zigor-arloko prozesuan. Halaber, lege prozesal penalak akusatua errugabetasun-presuntzioa indargabetzeko berez nahikoak ez diren frogabideak zehazteko beharra ere aztertzen da, edo absolbitutako pertsonaren errugabetasun-presuntzioa kaltetzen duten erabakirik jaso ezin izatea absoluzio-epai penaletan.<sup>99</sup> Azken aspektu honi dagokionez esan beharra dago, errugabetasun-presuntzioa lesionatu egin daitekeela, halaber, auzitegiak akusatua absolbitzea erabakitzen duenean, baina beste erabaki batzuetan errugabetasunari buruzko susmoak mantenduz.<sup>100</sup> Adibidez, absolbitutako akusatuari behin-behineko espetxealdiagatik kalte-ordaina ukatzen zaionean, Zinpeko Auzitegiaren susmoak erabat desagertu ez direla argudiatuta<sup>101</sup>. Era berean, inputatuari ezartzen zaionean biktimari kalte-ordainaren zati bat eta kostuen zati bat ordaintzea, nahiz eta jarduketak artxibatu<sup>102</sup>edo biktimari kalte-ordaina emateko kondena ezartzean, funtsari buruzko ebazpena eman baino lehen hil den akusatua jaraunslari ezarria<sup>103</sup>.

Errugabetasun-presuntzioa Estatuak babestu behar duen eta giza eskubideen babesa bermatzen duen oinarritzko eskubidea da. GEEH 6.2.artikuluaren eta Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen gutunaren 48.artikuluaren jasotzen den eskubidea izanik, ulertezina da, Defentsa-eskubidearen Lege Organikoaren aurreproiektuan pasadaz bakarrik aipatzea. GEEAren hitzetan errugabetasun-presuntzioak eskatzen du, Auzitegiko kideek, bere eginkizuna betetzean, alde aurretik pentsatutako ideiatik ez abiatzea. Kargu-frogaren zama alderdi

<sup>97</sup> CRESPO BARQUERO, P. (2020). La igualdad de armas y la asimetría acusación-defensa en un proceso penal basado en la presunción de inocencia: (Referencia al anteproyecto de Ley de Enjuiciamiento Criminal de 2011 y la propuesta de Código Procesal Penal de 2013). *Teoría & Derecho. Revista De Pensamiento jurídico*, (16), 259.or.. 227.or.

<sup>98</sup> Konstituzio Auzitegia, 81/1998 Sententzia, apirilaren 2koa, 3.O.J.

<sup>99</sup> CONSEJO GENERAL DEL PODER JUDICIAL. *Informe sobre el anteproyecto de Ley Orgánica del Derecho de Defensa*, Madrid, 2023, 40.or.

<sup>100</sup> ETXEBERRIA GURIDI, J.F (2014) Presunción de inocencia y derechos de la defensa. La compleja cuestión de su eficacia. Ordeñana Gezuraga I. *La carta de los derechos fundamentales de la unión europea y su reflejo en el ordenamiento jurídico español: europar batasunaren oinarritzko eskubideen gutuna eta bere isla espainiar ordenamendu juridikoan.* (845-864) Aranzadi-Thomson Reuters.

<sup>101</sup> Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren 1993ko abuztuaren 25eko epaia, Sekanina c. Austria 2005eko urtarrilaren 13ko epaia, Capeau c. Frantzia

<sup>102</sup> 1983ko martxoaren 25eko epaia, Minelli c. Suiza

<sup>103</sup> 2012ko apirilaren 12ko epaia, Lagardere c. Frantzia

akusatzaileari dagokio, eta epaiketaren ondoren alderdi akusatuaren erruduntasunari buruzko zalantzek jarraitzen badute, egoerak alderdi akusatuaren alde egingo du. Hemendik ondoriozta dezakegu akusazioari dagokiola akusatuari bere aurkako karguen berri ematea eta egitate horiengatik zigortzeko nahikoa froga aurkeztea.

Aurreproiektuak aipatzen ez duen eta GEEAk aztertu duen kuestio bat epaiketean zehar **girgiluen erabilerari** buruzkoa da. GEEAren jurisprudentzia aztertuz antzeman dezakegu, epaiketean akusatuak eskuburdinak jarrita izateak errugabetasun presuntzioa urratzen duela: *“normalmente, los acusados no deberán llevar grilletes o estar enjaulados durante el juicio, ni ser presentados ante el tribunal de alguna forma que dé a entender que podría tratarse de delinquentes peligrosos”*<sup>104</sup> Ikus daitekeenez, Giza Eskubideen Komiteak planteatzen du akusatuak pertsonak ez dutela girgilurik eraman behar edo kaiolatuta egon behar, eta, gainera, ez direla delitugile arriskutsu gisa aurkeztu behar jurisdikzio-organoaren aurrean. Aurrekoak atea irekitzen du beste neurri inkriminatzaile batzuk ere debekatutzat jotzeko<sup>105</sup>.

Aurreproiektuak aipatzen ez duen beste kuestio bat **epaia arrazoitua izatearen beharra** da, izan ere, ezinbestekoa da organo jurisdikzionalak zehatz finkatzea kargu-frogaren norainokoa, eta errugabetasun-presuntzioa ezerezteko nahikoa izan den edo akusatuaren erruduntasunari buruzko zalantzak dauden adierazi beharko du.

GEEAk kontsideratzen du, **errugabetasun-presuntzioaren urraketa prozesutik kanpo** ere gerta daitekeela, esaterako, epaimahaiko kideek edo beste agintaritzak publiko batzuek prentsari adierazpenak egitean, espezifikoki, ebazpena eman aurretik subjektu pasiboaren erruduntasunari erreferentzia egiten diotenean.<sup>106</sup> Zentzu honetan, laburki bada ere, aipamena egin behar zaio errugabetasun presuntzioak prozesutik kanpo edo eremu extraprozesalean duen garrantziari, izan ere, medioek eta gizarteak funtsezko presuntzio hau urratzen duten portaerak burutu ditzakete, hala nola, medioek atxilotua dagoen pertsona baten irudia publikatzean edo gobernuko agintariak prozesatu baten inguruko erruduntasunaren inguruko baieztapenak egitean, oraindik sententzia irmorik egon gabe, azken honen adibide garbia dugu Kolonbiako *Otoniel* kasua, oiartzun mediatiko handia izan zuena. Ondorio praktikoak dituen aspektu honek

<sup>104</sup> Svetlana Zhuk c. Belarús, 2013, párr. 8.4

<sup>105</sup> HIDALGO FLORES H. (2020). El Comité de derechos humanos y la presunción de inocencia: ¿Un derecho extraprocesal?. *Revista Latinoamericana De Derechos Humanos*, 30(2), 117.or.

<sup>106</sup> ESPARZA LEIBAR, I. eta ETXEBERRIA GURIDI, J.F, (2021) Derecho a un proceso equitativo, I. Lasagabaster (Ed.) *Convenio Europeo de Derechos Humanos: Comentario sistemático* (4<sup>o</sup>ed.), Thomson Reuters Civitas (282.or)

zuzenean eragin diezaioke prozesuan hain funtsezkoa den errugabetasun presuntzioari, burutzen den portaeraren arabera hura guztiz desitxuratua utz baitezake, eta aspektu hau kontuan ez izateak prozesuan errugabetasun presuntzioa errespetatu eta babesteko egiten diren ahalegin guztiak zapuztu ditzake.

GEEHren 6.artikuluari aipatzen ez den arren, **isilik egoteko eskubidea eta autoinkriminazioaren aurreko pribilegioa** nazioartean aitortzen dira<sup>107</sup>, errugabetasun-presuntzioarekin hertsiki lotuak daudelarik. EK 24.2 eta PKL 118.1.h eta 520.2.b.artikuluari aitortzen diren eskubide hauei dagokionez, aurreproiektuak gutxienez jotzen ez dituen aurreikuspen batzuk egin daitezke. Adibidez, akusatuaren isiltasunetik edo deklaratzeari uko egitetik ez dadila ondorioz atera.

Ezin dugu ahaztu ikertuaren galdeketa (edo deklarazioa) funtsean defentsa-bitarteko bat dela, hau da, lehen aukera ematen zaiola instrukzioko epailearen aurrean agertzeko, auziaren eraketa eragin duten egitate zigorgarrietan parte hartzetik desenkautzeko. Helburu horrekin, eta betiere borondatez, egiten zaizkion galdera guztiei edo batzuei erantzun ahal izango die, edo, aitzitik, isiltasuna aukeratu ahal izango du, eta akusazioa behartuta egongo da egitateen kontaketa eta auzipetuak horietan parte hartu duela egiaztatzen. Isiltasunerako eskubidea erabiltzeak, beraz, isilik geratzea esan nahi du, hau da, galdetzen zaionari erantzunik ez ematea, osorik edo zati batean. Isiltasuna isiltasuna da, ez besterik, eta isiltzea oinarrizko eskubide hori egikaritzeko modua da, eta bestelako kontsiderazio, alterazio edo espekulazio orok haren birtualtasuna ukatzen du. Laburbilduz, isiltasunerako eskubidea defentsa-eskubidearen adierazpen espezifikoa da, eta horrenbestez, ez ditu beste jarduketa batzuk baztertzen, ez da horiekin bateraezina, eta beste jokabide batzuk gauzatzea ezin da baloratu isiltasunaren balioa murrizteko<sup>108</sup>.

Era berean, akusatuari eta ikertuari ezin zaie zin egitea edo hitzematea eskatu, eta ezin zaie lekukotza faltsuaren delituagatik jazarri, egiten dituzten deklarazioengatik, salbu eta hirugarrenei kalteak eragiten dizkieten adierazpen inkriminatzaile faltsuengatik<sup>109</sup>. Eskubide hauek egikaritzeko beti bete behar dira adierazpen aske eta konszientearen bermatzen duten

---

<sup>107</sup> 1966ko Eskubide Zibil eta Politikoaren Nazioarteko Ituna, 14.3.g) artikulua

<sup>108</sup> ASENCIO GALLEGU, J.M. (2017). El derecho al silencio como manifestación del derecho de defensa (Ser. Monografías. alta calidad en investigación jurídica). Tirant lo Blanch.259-261.orr.

<sup>109</sup> CONSEJO GENERAL DEL PODER JUDICIAL. *Informe sobre el anteproyecto de Ley Orgánica del Derecho de Defensa*, Madrid, 2023, 40.or.



betekizun orokorrak. Ikertua ezin da deklaratzera behartu, ez du zertan bere defentsa alegazioaren errugabetasuna egiaztatu behar salbu, egitateak aitortzean<sup>110</sup>.

Defentsa-alegazioaren faltsutasunak ikertuaren sinesgarritasuna baloratzeko balio dezake, soilik bere adierazpenei dagokienez, baina ez da inola ere zigor-uziaren froga izango eta ezin da kontraesan horien iñolako baloraziorik egin, are gutxiago akusazioaren posizioari balio handiagoa emateko<sup>111</sup>.

Esan beharra dago eskubide hauek ez direla absolutuak eta GEEAk aztertu behar diren elementuak zehaztu dituela prozedura batean autoinkriminaziorik gabeko eskubidearen aurkako pribilegioaren funtsa urratu den erabakitze orduan: izaera eta derrigortasun maila, prozedurari dagozkion babes guztien existentzia eta lortutako materialen erabilpena nolakoa izan den.<sup>112</sup> Susmagarriak diren pertsonen isiltasuna ezin da ulertu erruduntasun zantzu bezala, beraz, kondenatorioa den epai bat ezingo da subjeto pasiboaren isiltasunean oinarritu.

---

<sup>110</sup> ASENCIO GALLEGO, J.M. (2017). El derecho al silencio como manifestación del derecho de defensa (Ser. Monografías. alta calidad en investigación jurídica). Tirant lo Blanch. 246-247.or.

<sup>111</sup> CHOCLÁN MONTALVO, JA. El derecho constitucional a la presunción de inocencia. En “Derechos Procesales Fundamentales”. Manuales de Formación continuada 22. CGPJ. Madrid. 2005.. 643.or.

<sup>112</sup> *Jallah c. Alemania*, 2006ko uztailaren 11ko Sententzia, 101.ap.

## ONDORIOAK

1. Defentsa eskubidearen Lege Organikoaren aurreproiektua aukera paregabea izan da defentsa-eskubidearen arazoei aurre egin eta herritarren bermeetan aurrerapenak egiteko, baina GrAL honetan zehaztu diren gabeziak kontuan izanik, argi ikus daiteke ez dela aukera hau behar bezala aprobetxatu ganorazko defentsa-eskubideen inguruko Lege Organiko bat formulatzeko, argia baita aurreproiektuaren sakontasun falta.
2. GrAL honetan egindako analisi sakonetik ondorioztatzen da, aurreproiektu hau guztiz desorekatua dagoela, kontuan hartzen bada alde batetik, legegileak hain funtsezkoak ez diren gaiei aurreproiektu honetan emandako zehaztasun maila eta bestetik, defentsa eskubidean ezinbestekoak diren eta GrAL honen ekarpenetan aipatu diren baina aurreproiektuan sakondu ez diren aspektuak falta direla.
3. Arazo nagusia aurreproiektu honekin eman den arautze-itxura da, errealitatean defentsa-eskubidearen arazo bakar bati ere aurre egiten ez diona eta prozesu penal batean murgilduta dauden pertsonak modu eraginkorrean babesteko nahikoa ez dena.
4. Defentsa-eskubidea arautzen duen Lege Organiko bat egitea aukera egokia izango litzateke, zalantzarik gabe, defentsa-eskubidearen funtsezko eduki konstituzionaletik eratortzen diren eta Konstituzioaren 17.3 eta 24. artikuluetatik eratortzen diren manu guztiak eskatzen den maila organikoarekin bat datorren arau batean biltzeko, eta erritu-legeetara erreserbatzeko izaera prozesal hutsa duten alderdi instrumentalak. Hori dela eta, egokia liteke aurrelegegilearen esku uztea arau baten eta besteen egokitzapen hori egitea, orain abiarazitako ekimena baita.<sup>113</sup>
5. Datuen babesari buruzko arau falta ere nabaria da, praktikan gatazkak sortzen baitira zentzu honetan ere, esaterako, bezeroek abokatuari atxilotu duten polizien plaka-zenbakia edo salaketa jarri duenaren izena eta helbidea ematea eskatzean<sup>114</sup>.

---

<sup>113</sup> CONSEJO GENERAL DEL PODER JUDICIAL. *Informe sobre el anteproyecto de Ley Orgánica del Derecho de Defensa*, Madrid, 2023, 41.or.

<sup>114</sup> ESTEBAN ERLÉS, P. (12 de septiembre, 2022) El anteproyecto de ley del derecho de defensa a examen: hablan la ministra Llop y los abogados, *Cinco Días*

## V. BIBLIOGRAFIA

1. AÑÓN ROIG, M.J. (2020) El derecho a ser oído y la justicia en el proceso. *Teoría & Derecho. Revista De Pensamiento jurídico*, (8), 173–202.
2. ASENSIO GALLEGO J.M. (2017). *El derecho al silencio como manifestación del derecho de defensa* (Ser. Monografías. alta calidad en investigación jurídica). Tirant lo Blanch.
3. BASTIDA FREIJEDO, F. J. (2004). Comentario bibliográfico sobre la naturaleza jurídica de las leyes orgánicas. *Revista Española de Derecho Constitucional*, (70), 291-308.
4. CANDELA MARTÍNEZ F. *La deontología y el Anteproyecto de Ley Orgánica del Derecho de Defensa*
5. CARNELUTTI MISSIAGLIA, F. (2018). *La prueba civil*. Ediciones Jurídicas Olejnik. (Obra original publicada en 1936).
6. COMUNICACIÓN PODER JUDICIAL (26 de Enero, 2023) *El Pleno del CGPJ aprueba el informe al anteproyecto de Ley Orgánica del Derecho de Defensa*
7. CONSEJO GENERAL DEL PODER JUDICIAL. *Informe sobre el anteproyecto de Ley Orgánica del Derecho de Defensa*, Madrid, 2023
8. CHOCLÁN MONTALVO, J.A. (2004) El derecho constitucional a la presunción de inocencia. *Derechos Procesales Fundamentales* (627-659)
9. CRESPO BARQUERO, P. (2020). LA IGUALDAD DE ARMAS Y LA ASIMETRÍA ACUSACIÓN-DEFENSA EN UN PROCESO PENAL BASADO EN LA PRESUNCIÓN DE INOCENCIA: (Referencia al anteproyecto de Ley de Enjuiciamiento Criminal de 2011 y la propuesta de Código Procesal Penal de 2013). *Teoría & Derecho. Revista De Pensamiento jurídico*, (16), 219–279.
10. Dirección de asuntos internacionales y derechos humanos (2019) *Lenguaje claro*.
11. ESPARZA LEIBAR, I. y ETXEBERRIA GURIDI J.F. (2021) Comentario al art. 6 CEDH. *Comentario Sistemático al Convenio Europeo de Derechos Humanos* (170-256), Thomson Reuters Civitas
12. ESTEBAN ERLÉS, P. (12 de septiembre, 2022) El anteproyecto de ley del derecho de defensa a examen: hablan la ministra Llop y los abogados, *Cinco Días*
13. EUROPEAN COURT OF HUMAN RIGHTS (2022) *Guide on Article 6 of the European Convention on Human Rights- Right to a fair trial (criminal limb)*

14. FERRAJOLI, L. (2018) *Derecho y razón: Teoría del garantismo penal*. Trotta
15. FISCALÍA GENERAL DEL ESTADO (2022) *Informe del Consejo Fiscal al Anteproyecto de Ley Orgánica del derecho de defensa*
16. GARCÍA MONTES, M. y GARCÍA ORTEGA, M. (22 de septiembre 2022), El acusado en el juicio debe declarar después de realizada toda la prueba, no el primero, como ahora. *Conflegal*
17. GÓMEZ COLOMER, J.L. y BARONA VILAR, S. (2022), *Proceso Penal. Derecho Procesal III*, (2ª Edición, Ser. Manuales) Tirant lo Blanch
18. GOMEZ CUADRADO, E. (12 de noviembre, 2019). El acusado en un procedimiento penal debe declarar en último lugar durante el juicio y sentarse junto a su abogado. *Abogacía Española Consejo General*
19. HIDALGO FLORES H. (2020). El Comité de derechos humanos y la presunción de inocencia: ¿Un derecho extraprocesal?. *Revista Latinoamericana De Derechos Humanos*, 30 (2)
20. LOPEZ YAGÜES, V. (2012) *El derecho a la asistencia y defensa letrada: su ejercicio en situaciones de privación de libertad*, Tirant lo Blanch 2002, Universitat d' Alacant (Publicacions)
21. MINISTERIO DE JUSTICIA (2022) *Presentación del anteproyecto de ley orgánica del derecho de defensa*
22. ORDEÑANA GEZURAGA I.(2014). *La carta de los derechos fundamentales de la unión europea y su reflejo en el ordenamiento jurídico español: europar batasunaren oinarritzko eskubideen gutuna eta bere islada espainiar ordenamendu juridikoan*. Aranzadi-Thomson Reuters.
23. REQUEJO NAVEROS, M., SÁNCHEZ PÉREZ, I., VEIGA GUERRA, N. (12 de septiembre, 2022) Publicado el Anteproyecto de Ley orgánica del Derecho de Defensa. *Pérez-Llorca*
24. ROXIN C. (2019) *Derecho procesal penal*. Ediciones Didot
25. URIARTE VALIENTE L.M. y FARTO PIAY T. (2007) *El proceso penal español: Jurisprudencia sistematizada*,. La Ley.

## VI. INTERESEKO ESTEKAK

1. [Anteproyecto de ley Orgánica de Derecho de Defensa.](#)
2. [Comisión de Venecia](#)
3. [Comisión Europea para la Eficacia de la Justicia \(CEPEJ\)](#)
4. [El acusado en el juicio debe declarar después de realizada toda la prueba, no el primero, como ahora - Confilegal](#)
5. [El acusado en un procedimiento penal debe declarar en último lugar durante el juicio y sentarse junto a su abogado – Abogacía Española](#)
6. [El anteproyecto de ley del derecho de defensa a examen: hablan la ministra Llop y los abogados | Legal | Cinco Días](#)
7. [El Pleno del CGPJ aprueba el informe al anteproyecto de Ley Orgánica del Derecho de Defensa](#)
8. [Informe sobre el anteproyecto de Ley Organica del Derecho de Defensa: file:///C:/Users/Usuario/Downloads/20230126%20Informe%20sobre%20el%20anteproyecto%20de%20Ley%20Org%C3%A1nica%20del%20Derecho%20de%20Defensa%20\(1\).pdf](#)
9. [Guide on Article 6 of the European Convention of Human Rights - Right to a fair trial](#)
10. <https://elibro-net.ehu.idm.oclc.org/es/ereader/eHu/116040>
11. <https://biblioteca-nubedelectura-com.ehu.idm.oclc.org/cloudLibrary/ebook/show/9788491903215>
12. <https://biblioteca-nubedelectura-com.ehu.idm.oclc.org/cloudLibrary/ebook/show/9788413361796>
13. [https://www.google.com/search?q=sinopsis+articulo+24+de+la+constitucion+espa%C3%B1ola&rlz=1C1GCEA\\_enES859ES859&oq=sinopsis+articulo+24&aqs=chrome.1.69i57j0i512j0i22i30l8.5634j0j7&sourceid=chrome&ie=UTF-8](https://www.google.com/search?q=sinopsis+articulo+24+de+la+constitucion+espa%C3%B1ola&rlz=1C1GCEA_enES859ES859&oq=sinopsis+articulo+24&aqs=chrome.1.69i57j0i512j0i22i30l8.5634j0j7&sourceid=chrome&ie=UTF-8)
14. <https://www.mjusticia.gob.es/404-not-found?requestUrl=https://www.mjusticia.gob.es/en/ministerio/gabinete-comunicacion/noticias-ministerio/220830-NP-APLO-DERECHO-DEFENSA>
15. [Informe del Consejo Fiscal al Anteproyecto de Ley Orgánica del Derecho de Defensa.](#)
16. [La deontología y el Anteproyecto de Ley Orgánica del Derecho de Defensa – Abogacía Española](#)
17. [LENGUAJE CLARO - Poder Judicial](#)
18. [Libro: Convenio Europeo de Derechos Humanos - 9788413906294 - Lasagabaster Herrarte, Iñaki - · Marcial Pons Librero](#)
19. [Poder Judicial](#)
20. [Proceso Penal. Derecho Procesal III 2ª Edición Tirant lo Blanch](#)
21. [Publicado el Anteproyecto de Ley Orgánica del Derecho de Defensa | Pérez-Llorca](#)

## VII. ARAUDIA

1. Espainiar Konsituzioa
2. Giza Eskubideen Europako Hitzarmena
3. Prozedura Kriminalaren Legea
4. Botere Judizialaren Lege organikoa
5. Defentsa Eskubidearen Lege organikoaren aurreproiektua
6. Espainiako Abokatutzaren Estatutu Orokorra onartzen duen martxoaren 2ko 135/2021 Errege Dekretua
7. 2010/64/UE Zuzentaraua, interpretazio eta itzulpen eskubideari buruzkoa
8. 2012/13/UE Zuzentaraua, informazio eskubideari buruzkoa
9. 2013/48/UE Zuzentaraua, abokatu-laguntzarako eskubideari eta atxilotetaren jakinarazpenari buruzkoa
10. 2016/343/UE Zuzentaraua, zigor-arloko prozesuan errugabetasun-presuntzioaren zenbait alderdi eta epaiketari egoteko eskubidea indartzen dituen
11. 2016/800/UE Zuzentaraua, prozesu penaletan adingabe susmagarrien edo akusatuen berme prozesalei buruzkoa
12. 2016/1919 Zuzentaraua, prozesu penaletan susmagarriei eta akusatuei eta atxilotzeko Europako agindu baten prozeduraren arabera bilatutako pertsonen doako laguntza juridikoa emateari buruzkoa
13. 1948ko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala
14. 1966ko Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunaren 14.artikulua
15. 1969ko Giza eskubide buruzko Amerikako Konbentzioa